

Iberoamerikaren kasuan, Argentina, Bolivia, Txile, Ekuador, Mexiko, Peru, Venezuela eta beste hainbat herrialdetako komunikazioaren historiari buruzko berariazko lanak daude, izaera orokorrekoak:

ÁLVAREZ, Jesús Timoteo, *Historia de la prensa iberoamericana*, Madril, Mapfre, 1992.
CHECA GODOY, Antonio, *Historia de la prensa en Iberoamérica*, Sevilla, Alfar, 1993.

Bibliografia ugari dago hainbat komunikabideren historiari eta beraien garapenari buruz. Teknologia-alderdiari buruz: Carl von Klinckowstroem, *Historia de la técnica*, Bartzelona, Labor, 1971. Telegrafoari buruz: Jeffrey Kieve, *The Electric Telegraph. A social and Economic History*, David & Charles, Newton Abbot, 1973. Zinemaren kasuan, izaera entziklopedikoko lana: *Diccionario del cine*, Madril, Rialp, 1991; eta kontsulta asko jasotzen ditu honako honek: Georges Sadoul, *Historia del cine mundial, de los orígenes hasta nuestros días*, Buenos Aires, Siglo XXI de Argentina, 1976. Bibliografia asko dago telefonoaren historiari buruz; irakurleari orokor bat eta gizarteko eragina aztertzen duen beste bat eskaintzen zaizkio: John Brooks, *Telephone. The first hundred years*, New York, Harper & Row, 1976; Ithiel de Sola Pool (ed.), *The social impact of the telephone*, Cambridge (Mass.), MIT Press, 1977. Irratirako: Hugh Aitken, *Syntony and Spark. The Origins of Radio*, New York, John Wiley & Sons, 1976; Jean Cazenoble, *Les origines de la télégraphie sans fils*, Paris, CNRS (Centre de Documentation des Sciences Humaines), 1981; Lawrence Lichty, *American Broadcasting, a Source Book on the History of radio and television*, New York Hasting House, 1975. Telebistaren hastapenetarako: Albert Abramson, *The History of Television, 1880 to 1941*, Jefferson, McFarland, 1987.

4. Kapituluia

Nazioarteko gizartea gerrarteko garaian

José Luis Neila Hernández

Historia Garaikideko Irakasle Laguna
Madrilgo Unibertsitate Autonomoa

Gerra Handiak aldaketak eta eraldaketak eragin eta suspertu zituen herrien arteko harremanetan eta bizimoduetan; gainera, eraldaketa horiek sumatu eta gauzatu ziren unean, denbora historikoa, gertakariak, izugarri bizkortu ziren bertigoa eraginez. Eric Hobsbawn historialari britainiarraren hitzetan «xx. mende laburra» izan zena 14ko Gerrarekin eta haren ostean bakea eraikitze eta herrien bizikidetzaren normalizatzeko egin ziren ahaleginekin hasi zen. Horiek guztiek eragin sakonak izan zituzten nazioarteko harremanetan eta nazioarteko gizartearen eraketan. Eta Pierre Renouvin-en hitzek argi azaldu zuten, «Alemaniaren gainbeherak, Austria-Hungariaren zatiketak eta Errusiaren paralisiak (sobietar gobernuaren gerra zibilean murgilduta baitzegoen) askatasun osoa eman zieten irabazleei bake-itunak eratzeko. Neurrigabeko lana izan zen hura, izan ere, borrokak Ekialde Urrunera, Mediterraneoko Levantera eta Afrikaren erdialdeko zati handi batera zabalitzeaz gain, aldaketa sakonak eragin zituzten erakunde politikoetan, gizarte- eta ekonomia-bizitzan eta herrien pentsamoldean, eta horrek guztiak kontinenteen arteko indarren oreka aldatu zuen».

Europak eta bertako potentzia handiek, gerraren aurreko nazioarteko sistemaren benetako epizentro zirenek, mundu-gatazka hartako protagonismoaren zati handia bereganatu zuten. James Joll-en esanetan, gerra europarra izan zen funtsean eta bakearen emaitzek izaera europar hori berretsi zuten. Gatazka Europatik kanpo izan zituen agerpenak europarren arteko tentsioen azaleratzea baino ez ziren izan. Laburbilduz, mundu-ordena berri bat ezartzeko lanean aritu ziren gizonak Europako mugak berrantolatze asmoz aritu ziren funtsean, kontinentean antzeko gatazkarik berriro gerta ez zedin.

Hala ere, mundu-gerraren aztoramenak nazioarteko gizartearen fisio- nomia behin betiko eraldatu zuen. Gerrak aurreko mendean abian jarritako hainbat prozesu eta sintoma bizkortu zituen, baina XIX. mendeko mundua- ren tradizioari eta herentziari zegozkien zenbait inertzia logikok iraun zuen. Beraz, esan genezake nazioarteko gizarte garaikidearen jaiotza (1945ean burutuko zen prozesua) eurozentrikoa ez zen eta Europa agintaritzat ez zuen mundu batean gertatu zela; izan ere, mundializazioa XIX. mendearen azken herenetik gauzatzen ari zen jadanik nazioarteko harremanetan.

Gatazkaren amaierarekin, Europako hiru inperio handi desagertu ziren: Alemaniako Reich-a, Austrohungariar Inperioa eta Errusiar Inperioa; bai eta Otomandar Inperioa ere. Gerrak, halaber, ezbehar demografiko itzela era- gin zuen Europan, zortzi milioi hildako baino gehiago izan ziren (frantsesak, alemanak eta errusiarrek gehienak); horrez gain, ahultze materiala nabar- mena izan zen. Europaren sendotasun ekonomikoa hondatu ahala, nazioar- teko ekonomia sortzen ari ziren potentzia berrien babesean berrantolatu zen, Amerikako Estatu Batuen babesean nagusiki. Arlo politikoari dagokionez, potentzia demokratiko eta liberalak garaile atera ziren; hortaz, haien prin- tzipioak nolabait goraiatu eta haien eredu politikoa Europako mapa berrian zabaldu nahi izan zuten. Hala ere, agerikoa zen ereduak gerran kalteak ja- san zituela eta gerraren ostean normalizazioa lortu nahi izanez gero, eredu politikoa demokratiko eta liberalak zailtasun askori egin beharko ziela aurre. Krisi-testuinguru hartan hainbat joeratako erantzun totalitario eta autorita- rioak sustatu ziren, bai gerra garaian eta bai gerraosteko bakealdi ezegonko- rrean. Aldi berean, eta paradoxikoki, bake-prozesuak ekarri zuen kolonien banaketa berriak eta nazioarteko mandatuen formula berriak europar poten- tzia garaileen jabetzak zabaldu zituen. Baina potentzia horien garrantzia mu- rrituz joan zen nazio-kontzientziak pixkana esnatuz baitzihozten; esnatze horretan, mundu-gerrak zeresanik izan zuen. Gerrak, azkenik, europar zibi- lizazioaren oinarriak krisian zeudelako kontzientzia zabaldu zuen. Kontzien- tzia hori hamaika adierazpen kultural eta artistikotan islatu zen.

Gerraostean gauzatu zen nazioarteko ordena berriaren eraiketa gaurko nazioarteko gizartearen eraketarako une erabakigarria izan zen. Ondorengo urteetako nazioarteko harremanen agertoki aztoratuan, hainbat mendetan era- bili izandako formek eta ohiturek ulerkera eta formula berriak izango dituzte aurrez aurre; eta nazioarteko sistema berri horren fidagarritasunak bakearen kontraesanei eta behar bezala amaitu gabeko kapituluaren erronkari egin be- harko die aurre.

1. 1914ko gerraren osteko nazioarteko ordena berria

Alemania eta Errusiaren artean gerra amaitu zen moduan amaitu bazen ere, eta Alemaniak Parisko Bakea inposizio (*diktat*) gisa ulertu bazuen ere, Bake Konferentziako ordezkari gehienek uste zuten, R. O. Paxton-en iritziz,

bake hark ez zuela alde bakarrekoa izan behar. Ez zuten nahi iraganeko itun iragankorren parekoa izan zedin, eta, horregatik, gerra berri baten arriskua saihestuko zuen sistema bat ezarri nahi izan zuten. Hala ere, borondate on horrek eta munduko iritzi publikoaren gehiengoak agerian utzi zuen gerraren kontrako gaitzespenak bide latza izan zuten bake-negoziaketetan, non herri bakoitzeko ordezkarien interesak lehiatzen baitziren.

Bakearen eraiketa zenbait faktorek baldintzatu zuten; faktore horien bi- lakaera eta edukia gatazkak aurrera egin ahala zehaztu ziren. Lehenik, esan beharra dago bakearen emaitza baldintzatu zuen faktore erabakigarria poten- tzia handiek hartu zuten jarrera izan zela, haien helburu eta interes nazionalei guztiz lotuta zegoena. *Statu quo* berriaren etorkizuna potentzia handien boron- datearen menpe zegoen; hau da, potentzia handi horiek elkar ondo ulertu be- har zuten ordena berria errespetatzeko eta haren eraginkortasuna bermatzeko. Europako potentzien artean, Frantzia izan zen gerran ahalegin handiena egin zuena eta gerra bere lurretan bortitzen pairatu zuena. Herri haren oroimen ko- lektiboak ezin zituen ahaztu mende erdian aldameneko herrialde boteretsuak egin zizkion bi erasoak. Frantziako ordezkariak alemaniarren mendeku-nahia- ren mehatxutik babesteko zituzten bermeak lortu nahi zituzten, segurtasuna helburu zuten bermeak alegia. Britainia Handiari dagokionez, kontinentean nolabaiteko botere-oreka gordetzeko helburua gogoan zuela heldu zen nego- ziazio-mahaira. Foreign Office-a eta Almirantegoa sinetsita zeuden Frantziak kontinentean nagusitasuna berreskuratu nahi zuela; eta, beraz, britainiar orde- zkariak alemaniar eskakizunekin malguago eta elkarrizketarako irekiago agertu ziren. Bestalde, britainiarrek itsasoz bestaldeko lurralde-erreklamazioak zituz- ten: Alemaniak Afrikan zituen jabetzak eta Otomandar Inperioaren hondarrak. Azkenik, Italia, Bake Konferentzian lau handietako bat bailitzan agertu zena, britainiarrek eta frantsesek gerran sartzearen truke Mediterraneo ekialdean eta Afrika iparraldean prometatutako zizkioten lurraldeak lortzen saiatu zen.

Europakoez gain, Ameriketako Estatu Batuak eta Japonia potentzia sortu berriak izan ziren konferentzian. Ameriketako Estatu Batuek hasieratik esan zuten ez zutela interes geopolitikorik; ez zuten lurralderik ezta abantaila po- litikorik bilatzen. Alemaniaren militarismoa deuseztatu nahi zuten eta Fran- tziari eta Britainia Handiari laguntza eman, azken hauekin kidetasun politiko eta ekonomikoak baitzituzten. Woodrow Wilson presidente iparramerikarra urrunago iristeko prest zegoen. Wilsonen utopismoa, Ipar Amerikako gizartean indarrean zeuden askatasun eta erakunde demokratikoetan oinarritzen zena, bakea nagusi zen mundu batean bakarrik zabal zitekeen. Halaber, mundu bake- tsu hori oinarri berrien gainean soilik eraiki zitekeen; demokrazian, segur- tasun kolektiboan eta autodeterminazioan oinarrituko zen sistema kolektibo baten gainean alegia. Japoniari dagokionez, gerran parte hartu ez zuen poten- tzia asoziatu bakarra izan zen. Diskurtso nazionalista baliatuz eta bere interes ekonomikoa eta demografikoa babesean, Japoniak europar potentziak Ekialde Urruneko merkatuetatik baztertu nahi zituen eta Alemaniak Pazifikokoan zituen jabetzen banaketan toki pribilegiatua izan nahi zuen.

Bigarrenik, gatazkan parte hartu zuten herrialdeek (bi alderdietakoek) gerra garaian hartu zituzten konpromisoak dauzkagu; aliantzak osatzeko asmoz, gerra amaitzean ordainduko ziren promesak egin baitzituzten. Horrela ulertu behar dira alde batetik frantsesen eta britainiarren arteko elkarrizketak, eta, bestetik, errusiarrekin izandako elkarrizketak; izan ere, 1915eko martxoan eta apirilean adostu zuten tsarraren Errusiak ez zuela bere aldetik bakerik sinatuko, eta Londresen eta Parisen helburuak errespetatuko zituela, betiere, itsasarteetan konpentsazioak lortzearen truke. Bai eta 1915ean Londresen eta 1917an Saint-Jean-de-Mauriennen sinatutako itunak ere, horietan Europako mendebaldeko bi potentziek Italiari gerran sartzearen truke azken horrek Mediterraneoko arroan zituen helburuak betetzeko laguntza izango zuela hitz eman baitzitoten.

Hirugarrenik, 1917ko urrian iraultza boltxebikeak sortu zuen izugarritzko aztoramenak eta Europako zenbait tokitan hari jarraitu zioten iraultza espartakistak (Alemanian, 1918an) zein Bela Kun-en aldi iraultzaileak (Hungarian, 1919ko abuztuan) mesfidantza handia eragin zuten mundu kapitalistan. Europako agintariek iraultzen hedapena geldiarazteko eta itoartzeko ahaleginak egin zituzten; bai eta boltxebikeen saiakera hura ezerezteko zuzenean esku hartu ere, gerra zibilean errusiar zurien alde eginez (bastioi erreakzionarioaren alde). Nazioarteko laguntzak (logistikoa, materiala eta giza laguntza) paradoxa bitxia ekarri zuen, alderdi berean bildu baitzituen herrialde aliatuen tropak, tropa asoziatuak eta Baltikoko herrialdeetan kokatuta zeuden alemanen tropak. Saiakera hark porrot egin ostean, Mendebaldeak estrategia aldatu zuen, eta saiakera boltxebike hura isolatu eta Errusiarekiko mugan Estatu independenteen lerro bat ezarri zuen Finlandiatik Turkiara.

Azkenik, gutxiengo nazionalak (Europa erdialde eta ekialdean batik bat) gerra-egoeraz baliatzen saiatu ziren emantzipazio-asmoei buru emateko. Bi alderdiek propaganda-arma gisa erabili zuten nazionalitateen printzipioa eta tratu berezia eman zieten gutxiengo horiei (erabilgarritasun politiko-estrategikoaren zein gutxiengo horren garrantziaren arabera), hori ondoriozta daiteke txekiarrekin eta poloniarrekin izan zuten jokaera ikusita. Gerra amaitzean, nazionalitateen printzipioa aplikatzearen arazoa sortu zen: alde batetik, European, non Estatu-nazioaren ekuazioa ebazteko Estatuaren barneko heterogeneotasun izugarriak eta sakabanatze etniko, kultural, linguistiko eta erlijiosoak berekin zekartzan zailtasunak gairatu beharra zegoen; bestetik, kolonietan, non emantzipazio-mugimenduak sendotuz eta garatuz baitzihoazen.

1.1. Bakea antolatzea

Nazioarteko ordena berria instituzionalizatu eta legeztatu zuen hitzarmen multzoa ez zen prozesu guztiz homogeen eta planifikatu baten emaitza izan, nahiz eta ordena berriaren oinarria, funtsean, Parisko Bake Konferentziako

lana izan; ezta ahalegin zehatz baten emaitza ere, 1918 eta 1923 bitarteko baldintzen arabera izan baitzen.

Erdialdeko potentziak eta haien aliatuak erortzeak eta Errusiaren eze-gonkortasunak koalizio garaileari bakearen oinarriak zehazteko askatasun handia eskaini zioten. Askatasun hura zeharka baldintzatuta zegoen, izan ere, Errusiak Alemania eta bere aliatuekin bake zirkunstantzial eta alde bakarrekoa sinatu zuen 1918ko martxoaren 3an Brest-Litovsk-eko itunarekin; horretan, Errusiak Poloniaz gain, Letonia, Estonia eta Lituania galdu zituen eta horiek guztiak Estatu independente bilakatu ziren. Bestalde, Finlandia eta Aaland Uharteen gaineko eragina galdu zuen, Ukrainaren independentzia onartu (hasiera batean Alemaniaren kontrolpean geratu zena) eta Erdehan, Kars eta Batumi Otomandar Inperioari eman behar izan zizkion.

Bakea, halaber, W. Wilsonen 1918ko urtarrilaren 8an Senatuari zuzendutako mezuan adierazitako *Hamalau puntu* ezagunek zuzenean baldintzatu zituen. Wilsonen presidentearen mezua plazaratu baino zertxobait lehenago, Leninek Sobiet-en II. Batzarrean (urriaren 26an) Bakeari buruzko txostena aurkeztu zuen; bertan, iparramerikar presidentek bere mezuan erabilitako kontzeptuak aipatu ziren (esaterako, autodeterminazio-printzipioa edo diplomazia sekretuaren debekua), baina ikuspegi oso ezberdinetik. Askatasunaren eta demokraziaren babesa eta autodeterminazio-printzipioaren onarpena hizpide hartuta, Wilsonen mezua zenbait planteamendu orokor aipatzen zuen esplizituki, hala nola, diplomazia irekiaren bertuteak, itsasoan askatasuna, merkataritzari hesiak kendu beharra, armamentua murriztea edo nazioarteko bizitza Nazioen Elkarte baten bidez antolatzea. Printzipio abstraktu hauez gain, autodeterminazio-printzipioaren aipamena proposamen zehatzetan ere gauzatu zen; esaterako, Belgikaren independentziaren aitortzea bilatzen zuen proposamenean, Austrohungariar Inperioko gutxiengo nazionalen nahietan, Penintsula Balkanikoaren edo Poloniaren kasuan, bai eta Italiak edo Frantziak euren mugei zegokienez egiten zituzten eskakizunetan ere.

Mezu hartako ildo nagusiak Alemaniarekin gauzatu zen edozein negoziaketarako oinarri gisa defendatzen zituen Ipar Amerikako administrazioak, eta, azkenik, Belgikako, Britainia Handiko eta Frantziako gobernuak onartu egin zituzten. Alemaniak 1918ko azaroaren 11n Compiègne-n sinatutako armistizioak, printzipio haiek oinarri zituela, bake-negoziaketetarako bidea ireki zuen.

Parisko Bake Konferentzia nazioarteko ordena berria diseinatu eta eztabaidatzeko mekanismo konplexua gaitu zuen foroa izan zen; horrela, historian parekorik izan ez zuen gerra haren ondoriozko oreka berria berretsi zen. Prozedura-kontuak eztabaidatzeko asmoz bildu ziren ordezkari iparramerikarrak, britainiarrak, frantsesak eta italiarrak urtarrilaren 12an, eta prestakuntza-bilera horrek eman zion hasiera Bake Konferentziari. Hain zuzen ere, Raymond Poincaré-k eman zion konferentziari hasiera hilaren 18an, bi alderdietako 27 ordezkari zuzendutako hitzaldi batekin.

Bake Konferentziak auzi hauei heldu behar zien: Europa berreraikitze berehalako beharrei, European mapa politiko berria zehazteari (1815. urteaz

geroztik egindako mugen berrantolaketa sakonena eginez) eta Alemaniak itsasoz bestalde zituen lurralde eta interesen etorkizunaren bai eta Otomandar Inperioaren lurraldeen etorkizunaren arazoa konpontzeari ere.

Lan itzel horri ekiteko, konferentziak bi fase bereizi izan zituen. Lehenak, urtarrila eta martxoa bitartekoak, konferentziako organo gorenaren lanarekin batera egin zuen aurrera, hots, Hamarren Kontseiluaren lanarekin batera. Potentzia garaileetako (AEB, Frantzia, Britainia Handia, Italia eta Japonia) gobernuburuek eta Atzerri Arazoetako ministroek osatu zuten kontseilu hori, eta bakearen oinarriak eztabaidatzea eta batzorde espezializatuetako jarduera zuzentzea izan zen haren zeregina. Bigarren fasean, martxoa eta ekaina bitartean, Lauen Kontseilua sortu zen, mendebaldeko lau potentzien gidariek osatzen zuten kontseilu hori eta Alemaniarekin sinatuko zen bake-ituna zertan izango zen eztabaidatzea zuen helburu.

Konferentzian agerian geratu zen bateratzeko zailak izango zirela, batetik, printzipio liberal eta demokratikoetan eta herrien autodeterminazio-eskubidean oinarrituko zen ordena berria eta nazioarteko arazoak antolatuko zituen erakunde bakarra, eta bestetik, herrialde bakoitzeko ordezkarien interesak eta helburuak, batez ere, potentzia handien interesak eta helburuak. Hori guztia ordezkarien lanak utzi zuen agerian, eta, batez ere, jarraian aipatuko diren gizonen lanak. Georges Clemenceau, 1870eko esperientzia bizi zuen gobernuburua zen, jarrera autoritarioa eta nortasun gogorra zuena. Raymond Poincaré, Errepublikako presidentea, Lorrenako munduarekin estuki lotua zegoen familia-harremanak zirela tarteko. Foch mariskala, Frantziako ordezkarietako komandante-burua izanik, Frantziak Alemaniarekiko zeukan abantaila eskasaren jakitun zen. Lloyd George, britainiar ordezkarien burua zen, jarrera bakegilea zuen eta Frantziak Alemaniarekiko zituen asmoak leuntzen saiatu zen; gainera, Smuts jeneralaren laguntza azpimarragarria izan zuen. Woodrow Wilson zegoen iparramerikar ordezkarien gidaritzan eta Nazioen Elkartearen proiektua aurrera ateratzeko sutsuki aritu zen lanean, House koronela aholkulari gisa izan zuen lankide. Azkenik, Orlando aipatu behar da italiar ordezkarien artean, bere herriaren lurralde-eskakizunak arrakasta txikiarekin defendatu bazituen ere.

Bake hark lortu zuen adostasun eskasa potentzia handien oinarrizko zenbait konpromisoren emaitza izan zen. Lehenik, ildo beretik zihoazen britainiarren botere-orekaren ikusmoldea eta segurtasun kolektiboaren ikuspegi errealistagoa, eta Wilsonen ikusmoldeen idealismoa. Konferentzia hasi aurretik eta hark iraun zuen bitartean nabaria izan zen anglosaxoien arteko adostasun-giroan azaldu ziren jarrera horiek. Konferentzian anglosaxoien ikusmoldeak eta prozedurak izan ziren nagusi eta haien adierazpidea ingelesa izan zen. Bigarrenik, Alemaniaren etorkizunari zegokionez, tarteko bide bat erdietsi zen frantsesen zorrozkeriaren eta britainiarren eskuzabaltasunaren artean. Azkenik, segurtasuna bermatzeko frantsesek zuten gogo biziaren eta Nazioen Elkartearen sortzeko Wilsonen zuten nahiaren artean ere, konpromiso bat lortu zen.

Parisko Baketik bost bake-itun atera ziren. Itun horiek banaka sinatu ziren garaitutako nazio bakoitzarekin eta izenpekoa idatzi zitzaient jauregien izena hartu zuten; Hitlerrek Parisko «behe-auzoetako itun» izendatu zituen, erdeinuz.

Lehena eta garrantzitsuena Versaillesko Ituna izan zen, Alemaniarekin 1919ko ekainaren 28an Ispiluen Galerian sinatu zena. Klausulen izaerari dagokionez, hitzarmen horrek ezarri zuen gainerako bake-itunen eredua. Alemaniari *inposatu* zitzaion bakeak 15 ataletan banatutako 440 artikuluz zituen, eta klausuletan lurraldeari zegozkion xedapenak, segurtasun eta ordena militarra bermatzeko xedapenak eta finantza-kompentsazioei buruzko xedapenak zeuden.

Alemaniaren mapa berriak 80.000 km² gutxiago zituen eta 8 milioi biztanlerengan zuen eragina. Gero, dialektika errebisionistaren argumenturik sendoenetakoa bilakatu zen lurralde-murrizketarena. Iparraldean eta mendebaldean Alsazia eta Lorrena eman behar izan zizkion Frantziari, 1920ko plebiszituen ostean Eupen eta Malmedy Belgikari, eta urte bereko plebiszituaren ostean Schleswig Danimarkari. Ekialdean, 1921eko plebiszituaren ostean, Posnania, Prusiaren mendebaldea eta Silesia Garaiaren hegoaldea (industria-balio handiko eskualdea) eman zizkion Poloniari, eta ekialdeko Prusian kokatutako Memel Lituaniaren eskuetan geratu zen inolako plebiziturik egin gabe.

Halaber, Alemaniako zenbait eskualde Nazioen Elkartearen kontrolpean geratu ziren. Frantziak Sarre land-a eskatu bazuen ere, nazioarteko erakunde berriaren babespean geratu zen 15 urtez. Era berean, alemaniar biztanleriaren ehuneko handia zuen Dantzig hiria Nazioen Elkartearen kontrolpeko hiri libre bilakatu zen; Poloniarekin hitzarmen bat egingo zela aurreikusita zegoen, Dantzig Poloniaren aduana-eremuaren barnean sartzeko eta poloniarrei porturako sarbidea bermatzeko.

Azkenik, Alemaniak Europatik kanpo zituen lurraldeak nazioarteko mandatu bilakatu ziren, eta, Nazioen Elkartearen babespean, hainbat herrialderen artean banatu zituzten. Britainia Handiak Tanganyikaren ardura hartu zuen; Frantziak, Britainia Handiarekin banaketa egin ostean, kontrolpean hartu zituen Togo eta Kamerun; Belgikak Ruanda-Burundi gobernatuko zuen; Hegoafrikako Batasuna hego-mendebaldeko Afrikaz arduratu zen; eta Japoniak, Australiak eta Zeelanda Berriak Pazifikoko jabetza alemaniarren euren artean banatu zituzten.

Klausula militarrek, Wilsonen desarmatze-nahiei erantzunez eta alemaniar botere militarra berpiztea ekiditeko frantsesek eta belgikarrek egindako kalkuluei jarraituz, alemaniar armadak 100.000 gizon baino izango ez zituela xedatu zuten. Armada horrek profesionala izan behar zuen, eta, beraz, nahitaezko soldadutza kendu behar zuten; aldi berean, artilleria astuna, tankeak eta abiazioa debekatu egin zituzten. Halaber, aliatuei eman behar izan zieten flota eta ekainaren 21ean Scapa Flow-n leherrarazi zuten.

Baina Frantziak ez zien segurtasuna bermatzeko eskakizunei amore eman eta berme politikoak eskatu zituen. Britainiarrek eta iparramerikarrek

ez zuten Foch mariskalaren egitasmoa onartu, zeinak Rhin-aren ezkerreko urertzeko lurraldeak zatikatu nahi zituen. Azkenik Rhin-aren ezkerreko urertza desmilitarizatu zen, bai eta eskuineko urertzeko 50 km-ko tartea ere. Horrez gain, Wilsonen eta Lloyd Georgek onartu zuten ezkerreko urertzeko lurrek 15 urtez okupazio militarra jasango zutela, bai eta eskuineko urertzerako bidean hiri nagusiek ere (Koloniak, Koblentzek eta Mainzek). Berme hauek osatzeko, Frantziak Britainia Handiarekin eta AEBekin tratatuaren eranskinak izango ziren berme-hitzarmenak gauzatu zituen; horien arabera, bi herrialde berme-emailek laguntza emango zieten Frantzia eta Belgikari, Alemaniak (tartean probokaziorik egon gabe) erasoko balie. Azkenik, 231. artikulua araututako finantza-klausulak Alemaniari egozten zion gerraren erantzukizun moralak, eta, beraz, herrialde aliatuetako hiritarrei eta haien jabetzei eragindako kalteei aurre egin beharko zien. Itunak irekita utzi zuen kalte horien ordainketaren auzia, horretarako espresuki sortuko zen batzorde batean eztabaidatua izan zedin.

Austria-Hungariaren zatiketa, erdialdeko eta ekialdeko Europako mapa berrantolatzea zekarrena, bi irizpideri jarraituz gauzatu zen: batetik, ordura arte Austrohungariar Inperioarenak ziren lurraldeen etorkizuna zehaztea; bestetik, alemaniar, austrohungariar eta errusiar inperioetakoak izan ziren lurraldeetan eraiki ziren Estatu berrien mugak zehaztea, hots, Poloniarenak, Txekosloveniarenak, eta serbiar, kroaziar eta esloveniaren erresumenak.

1919ko udan, Habsburgarren Inperio zaharraren muga berriak zehazteko lanak hasi ziren. 1919ko irailaren 10ean sinatu zen Saint-Germaingo Itunak Austriaren (arestiko inperioaren hondarretatik sortutako Estatu bat baten) mugak zehaztu zituen. Austriar Estatuak Alpeetako eskualdea eta Danubioren lautadaren zati bat hartu zituen, horrek 84.000 km² eta 6,5 milioi biztanle zituen guztira. Austriak eta Alemaniak, Nazioen Elkartearen baitan izan ezean, elkartzea (*Aunchluss*) debekatuta zuten Saint-Germaingo Itunaren 88. artikulua eta Versaillesko Itunaren 80. artikulua xedatzen zutenaren arabera.

Austria eta Italiaren arteko mugak berrantolatzean, Trentino-Alto-Adige eskualdea eman zitzaion Italiari Brenneroko pasabide estrategikoraino. Hala ere, Italiak ez zituen bere nahi irredentistak ase Istriako penintsularekiko, mendebaldeko Karniolarekiko, Korintoren zati batekiko, ezta Dalmaziarekiko ere. Iparraldean, Txekosloveniako Errepublika osatu zuten Bohemiako erresuma zaharrak (Sudeteak barne), Moraviak eta austriar Silesiak (azken lurralde hau Poloniarekin banatu bazen ere). Ekialdean, Austriak Errumaniari Bukovinako lurraldeak eman zizkion, eta, 1923ko uztailaren 23an, Poloniak ekialdeko Galitzia beretu zuen. Azkenik, hego-ekialdean, Dalmazia, Bosnia eta Herzegovina serbiar, kroaziar eta esloveniaren erresuman sartu zituen. Artean, Klagenfurt eta Burgenland eskualdeek plebizitu bidez Austriaren menpe geratzea erabaki zuten 1921ean. Halaber, ituneko klausula militarrek xedatzen zutenaren arabera, austriar armadak 35.000 lagun baino ezingo zuen izan, eta gatazkaren erantzule gisa kalteak konpondu beharra onartu zuen.

Iraultzak eragindako krisiaren ondorioz, Hungariarekin bakea sinatzea atzeratu egin zen. Bestalde, Hungaria Austriatik banandu zen Bake Konferentzia baino bi hilabete lehenago. Trianongo Itunak, 1920ko ekainaren 4an sinatu zenak, Estatu berriari 92.000 km²-ko azalera eta 8 milioi biztanle eman zizkion; aldi berean, armada 35.000 lagunera mugatzen zuten klausula militarrek zituen eta gerrak eragindako kalteak konpontzeko ezarpena onartzen zuen. Hegoaldean, Fiume, Eslovenia, Kroaziako erresuma, mendebaldeko Banato eta Batschka geroago sortuko zen Jugoslaviako Estatuari eman zizkion. Iparraldean, Eslovakia eta Rutenia subkarpatikoa eman zizkion Txekosloveniari. Ekialdean, Errumaniak, aurretik ekialdeko Banato jaso zuenak, Transilvaniako zati handia bereganatu zuen, non hungariar biztanleriaren ehuneko handia zegoen. Errumania Errusiaren kontura ere hedatu zen, Besarabia bereganatu baitzuen.

Bulgariak Neuillyko Itunarekin izenpetu zuen bakea 1919ko azaroaren 27an. Bulgariak itsasorako bidea galdu zuen erdialdeko Trazia kendu eta greziarren esku geratu zenean; iparraldean Mazedonia serbiar, kroaziar eta esloveniaren erresumari eman zitzaion; eta, azkenik, Dobruja Errumaniaren menpe geratu zen.

Amaitzeko, 1920ko abuztuaren 10ean izenpetu zen Sèvresko Ituna dugu, horrekin ekin zitzaion Otomandar Inperioa zatitzeari, baina Turkiak ez zuen itun hori sekula berretsi. Garaileek ezarri zituzten bakerako baldintzak izugarri gogorrak izan ziren. Horrek, zalantzarik gabe, eragina izan zuen Mustafa Kemal buru izan zuen errepublikaren nazionalistan, zeinetan sultangoa suntsitu eta errepublika aldarrikatu baitzen. Turkiak garaileekin negoziatu zuen bake berria Lausanako Itunean gauzatu zen, 1923ko uztailaren 23an. Turkiaren lurraldea mugatua geratu zen, Asia txikia eta Istanbul inguruko azalera txiki bat baino ez zuen hartzen. Bakea berriro negoziatu izanak ekialdeko Trazia, Esmirna, Armenia eta Kurdistan berreskuratzeko aukera eman zion Turkiari, bai eta itsasarteak, turkiarren kontrolpean, desmilitarizatzeako aukera ere. Horrez gain, armadak ez zuen inolako murrizketarik jasan eta ez zitzaion konponketak ordaintzeko beharrik ezarri. Aitzitik, Sèvres-en arabiar lurraldeei buruz erabaki zena ez zen aldatu; hortaz, Siria eta Libano Frantziako administrazioaren menpeko mandatu bilakatu ziren, eta Irak, Transjordania eta Palestina Britainia Handiko administrazioaren menpeko.


1.2. Nazioarteko erakundearen jaiotza: nazioen elkarte

Nazioarteko ordena berria eta bakearen eraiketa ez zen soilik izan kartografia-lana egitea, segurtasun-proposamen zehatzak eztabaidatzea eta gerra-kalteak konpontzeko bideak ezartzea; horrez gain, nazioarteko harremanetan kontzeptu eta mekanismo berritzaileak barneratu zituen, Nazioen Elkartearen gorpuztu zirenak. Gaiaren gainean gauzatutako azterlan klasiko batean, F. P. Walters-ek adierazi zuen erakunde berri hura zela «munduko ordena politiko eta soziala antola-

tzeko egin den lehen pausu eraginkorra, zeinetan gizateria osoaren interesak gogoan izan eta babestuak izango baitziren, edonolako oztopoak gaindituz, nazioko tradizioak direla, arraza-ezberdintasuna dela edota distantzia geografikoa dela». Zalantzarik gabe, saiakera berri hark zor historikoa zuen *betiko bakea* eta gerra saihestearen inguruko mendetako idealekin, bai eta aurreko mendean zehar garatu ziren saiakera internazionalistekin ere; baina, aipatu dugun autore horren arabera, Nazioen Elkarteak osagai iraultzailea zuen, izan ere, «hedaduran eta abiaduran pareko aurrekaririk ez zuen aurrerapausoa izan zen eta nazioarteko harremanetako jarreran aparteko aldaketak ekarri zituen: iritzi publikoaren oinarria osatzen duten printzipioak, metodoak eta uste orokorrak eraldatzea».

Aldiz, beste zenbait iritzik apalago baloratu zuen erakundea, haren eduki iraultzailea ikuspegi historikotik aztertuz eta hausnarketa-gaitzat honako ideia hauek hartzean: nazioarteko erakunde berriaren lanaren gaineko adostasunak eta desadostasunak, eta Estatuak euren subiranotasuna erabiltzeko zuten inertzia. Ikuspuntu horretatik abiatuta, Juan Antonio Carrillo Salcedok dio Nazioen Elkartearen erreforma bat izan zela haustura bat baino gehiago. Haren esanetan, «nazioarteko antolaketaren jaiotza» ekarri zuen hark eta «nazioarteko sistemaren funtzionamenduan berrikuntza garrantzitsuak sartu bazituen ere, ez zion estatuen arteko harreman-egiturari eragin; izan ere, erakundea ez zen sortu Estatu subiranoen gainean egongo zen eta autoritate politiko gorena izango zuen instantzia izateko asmoz».

Nazioarteko erakunde berriaren eraketa mundu-gerra tragikoaren ondorio zuzena izan zen, bai eta bakearen eraiketan eginiko ahalegin berritzaile eta konprometituen ere. Horrela, bada, Bake Konferentziaren aurreko lanetan eta konferentzia gauzatu ahala ere, alde eta desadostasun ugari sortu ziren potentzia handien artean erakundearen gaineko ikusmoldeei, azaltzeko moduei eta analisei dagokienez. Eztabaida haren muturretan zeuden ideiak hauek ziren funtsean: batetik, Wilson presidentearen idealismoa dugu, hitzarmen (*covenant*) serio eta ia erlijioso gisa gauzatu zena eta nazioarteko harremanetan nagusi zen *Realpolitik* haren alternatiba ere bazena; bestetik, errealismoa, frantziar proposamenek (batez ere, Léon Bourgeois-en proposamenek) nagusi zutena eta nazioarteko autoritate sendo, indartsu eta armatu batetik abiatuta *statu quo* berriaren segurtasuna bermatzeko helburua zutena. Bi mutur horien erdibidean (baina Washingtongo sentsibilitatetik hurbilago), britainiarren proposamenak zeuden; horiek, jarrera pragmatikoari eutsiz, Smuts jeneralaren proiektua izan zuten emaitza, 1918. urtearen amaiera aldera. Proiektu horrek *The League of Nations. A Practical Suggestion* (Nazioen Liga. Proposamen praktikoa) zuen izena eta eragin nabarmena izan zuen Wilsonengan eta Bake Konferentziako lanetan. Protagonista horien jarduerak nazioarteko iritzi publikoan nagusi zen gogo-aldarte islatzen zuen, hau da, gerraren errefusa. Jarrera hori zenbait forrotan zen bereziki ikusgarria; esate baterako, League to Enforce Peace-n, The League of Nations Union-en edota la Association Française pour la Société des Nations-en, horien nahi esplizitua nazioarteko erakunde berri bat eraikitzeko gogo-aldarte egokia sortzea zen.



Iturria: P. Gerbert, V.Y. Ghebali eta M.R. Mouton, *Société des Nations et Organisation des Nations Unies*, Paris, Éditions Richelieu, 1973, 386. or.

4.1. Irudia

Nazioen Elkartearen organigrama

Parisen Bake Konferentzia hasita, Wilson presidenteak bakearen giltzarria izango zen Nazioen Elkartearen sortzeko prozesua bultzatzeko eta gidatzeko protagonismoa bere gain hartu zuen. Halaber, konferentzian eztabaidatu ziren hainbat arazo korapilatsu etorkizuneko erakunde horretan eztabaidatuko zirela espero

zuen, bai eta erakunde hori bake-itunen hutsuneak konpontzeko gai izango zela ere. Konferentziak Nazioen Elkarteko Ituna eztabaidatu eta idazteko batzorde berezi bat sortu zuen. Wilson zen batzorde haren burua, eta, harez gain, auzi hartan eragin handia zuten protagonistak ere bazeuden; besteak beste, Léon Bourgeois, Smuts jenerala eta House koronela. Apirilaren 28an, konferentziako osoko bilkuran, Wilsonek Nazioen Elkarteko Itunaren azken testua aurkeztu zuen, bai eta zenbait gomendio ere; besteak beste, Eric Drummond proposatu zuen idazkari nagusia izateko, 13 estatu neutraleko zerrenda sartu zuen eta Belgika, Brasil, Espainia eta Grezia Kontseiluko aldi baterako kide izendatu zituen.

Itunaren testua bake-itunen lehen parte bilakatu zen, behin konferentzian onartuta. Itunak 26 artikulua ditu eta erabilera anitzeko tresna politiko-juridikoa da. Izan ere, Erakundearen jardura arautzeaz gain, haren izatearen iturria ere bazen. Ordutik aurrera eta gerrarteko garaian, Nazioen Elkartea nazioarteko alde anitzeko harremanak artikulatzeko oinarri instituzional bilakatu zen.

Hitzaurreak xedatzen zuenaren arabera, Ituna sinatzen zutenek konpromiso hauek hartu zituzten: ez zuten gerra baliatuko; justizian eta ohorean oinarritutako nazioarteko harremanak agerian izango zituzten eta ez ezkutuan; nazioarteko zuzenbidearen aginduak zorrotz beteko zituzten, eta itunetik eratorritako betebeharrak ardura handiz errespetatuko. Hori guztia «nazioen lankidetzaren sustatzeko, eta bakea eta segurtasuna bermatzeko». Nazioen Elkartearen izaerak eta zereginak bi dimentsio zituzten, banatu ezinako dimentsioak gainera: segurtasun kolektiboaren bidez bakea bermatzea eta lankidetzaren bidez bakea eraikitzea.

Itunaren 8.-17. artikuluek Nazioen Elkartearen zeregin politikoaren funtsa arautzen zuten, hots, segurtasun kolektiboa bermatzeko sistema. Hala ere, zeregin hori nazioarteko erakundearen jarduerak aurrera egin ahala zehaztuko zela aurreikusten zuen Itunak. Henry Kissinger-en hitzetan, segurtasun kolektiborako sistema, ohiko aliantzak ez bezala, «ez da mehatxu bat, ez ditu nazioak banaka bermatzen eta ez du naziorik baztertzen». Segurtasun kolektiborako sistema «bakearen kontrako mehatxuei aurre egiteko» sortu zen eta «nazioarteko zuzenbidea modu abstraktuan» babestu nahi du. Laburbilduz, Itunean azaltzen zen segurtasun kolektiborako sistemak gerra saihesteko sistema juridikoa eratu nahi zuen, eta, horretan, zenbait elementu elkar eragiten zuten: Estatuaren independen-tziaren eta lurraldearen osotasunaren bermea, laguntza kolektiboa, arbitrajea, gerrarako eskubidea mugatzea eta zigor sistema bat. Ulerkera honen oinarrian, funtsezko hiru zutabe zeuden: arbitrajea, desarmaea eta segurtasuna.

Funtsezkoa izanda ere, bakea ez zen bermatuko segurtasun kolektiboaren bidetik bakarrik, horrez gain, bakea sustatzeko printzipio konstruktibo bat ere beharrezkoa zen: nazioarteko lankidetzaren. Nazioarteko lankidetzak, Itunaren 23.-25. artikuluek hartzen zituenak, uste sendo bat zuen oinarrian: bakea lortzeko bide bakarra justizia soziala bultzatzea zela, besteak beste, osasun-, kultura- eta ekonomia-gaietan lankidetzaren sustatzea.

Printzipio eta helburu hauek erdiesteko sortu zen erakunde-egitura hura, egoitza Genevan zuena (potentzia anglosaxoiek proposatutako hirian), na-

zioarteko erakunde berri haren ehundura organiko bilakatu zen. Nazioarteko administrazio berriak zenbait organo zentral zuen, eta horietako bik goimailako zeregin politikoa zuten: Kontseiluak eta Asanbladak (3.-5. artikuluek). Bi horiek «Nazio Elkartearen jardunari zegozkion auzien eta munduko bakeari eragiten zioten auzien» ardura hartuko zuten beren gain. Estatuarteko erakunde horiek jardunaren jardunaz zehaztu beharko zituzten eskumenak eta funtzionamendu-arauak. Kontseilua, batzorde exekutiboaren papera hartuko zuena, Aliantza Santuaren berraragitze gisa ikusten zuten potentzia txikien begiek. Aldiz, Asanblada Nazioen Elkarteko organo demokratikoena bilakatu zen. Horiekin batera, funtsean tekniko-administratiboa zen Idazkaritza Iraunkorra zegoen; eta hori zen nazioarteko administrazio berriaren ardatza 2. artikuluen arabera. Aurrekoez gain, teknikoak zein politikoak ziren organo subsidiario multzo zabalak osatzen zuen erakunde multzo hura, bai eta Elkarteari lotuta zeuden hainbat organo autonomok; besteak beste, egoitza Hagan zuen Nazioarteko Justizia Auzitegi Iraunkorra eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak.

Nazioarteko ordena berriak, Europako mapa *balkanizatu* zuen prozesuaren bermatzaile zenak, eta nazioarteko bizitza antolatze saiakera kolektibo berri baten gainean egituratu zenak, egoera oso ezegonkorrean ekin zion bideari. Nazioarteko erakunde berriaren grina unibertsalistak zenbait oztopo topatu zuen bidean: batetik, garaiak izan ziren potentzien hasierako ostrazismoa eta Sobietar Batasunaren baztertzea; bestetik, Ipar Amerikako Senatuak 1919 eta 1920an Parisen negoziatu ziren bakearen baldintzak onartu ez izanak eragin zuen etsipen moral eta politiko itzela. Bake hura eskasa zela berehala salatu zuten bai prozesuaren behatzaile pribilegiatuek (esaterako, John M. Keynes-ek *The economic consequences of peace —Bakearen ondorio ekonomikoak—* lanean), bai gertaera haien lekuko zuzenak ere. Azken horien adibide ditugu Foch mariskala eta Harold Nicholson. Lehenak hau esan zuen Versaillesko Itunari buruz: «Hau ez da bakea; honek ez du bakea ekarriko, 20 urterako armistizioa baino ez da». Bigarrenaren hitzek izugarri ondo deskribatzen dute konferentziaren emaitzek eragindako nahigabea: «Ordena berri bat ezarria izateko zorian zegoela sinetsita etorri ginen Parisa; handik irtetean, ziur geunden ordena berriak aurrekoa hondatu baino ez zuela egin».

2. Nazioarteko harremanak: bakearen kimeraren eta gerraren amildegia artean

Gerraren ondorioek eta bake haren izaerak tentsio handiak eragin zituzten gerraren osteko *normalizazio*-bidean eta Versaillesko ordenaren oinarritik abiatu zen nazioarteko gizarte berriaren eraiketan. Gerraren osteko nazioarteko harremanak hainbat joeratako tentsio dialektikoek baldintzatu zituzten: lehenik, *statu quo* berriaren alde zeudenen eta garaileek inposatutako *diktat* haren kontra zeuden errebisionisten arteko tentsioak, bi ho-

rien artean hainbat tarteko jarrera zegoelarik; bigarrenik, jarrera *idealistak* nazioarteko bizitzan sartu zituen formula eta balio berrien eta nazioarteko tradizioari berezkoak zitzaizkion jokaera *errealista* haien inertziaren arteko tentsioak, zeinak diplomaziaren filosofia eta formari ez ezik, planteamendu geopolitikoei ere eragin baitzien; hirugarrenik, Errusian nagusitu zen marxismo-leninismoaren indar iraultzailearen eta mundu kapitalistaren arteko antagonismoak; laugarrenik, ekonomia-esparruan, gerraren ondorioek eta munduko ekonomia-indarren orekan gauzatutako eraldaketa sakonaren eraginez agertzen ari ziren aktore ekonomiko berrien eta Europak betetzen zuen toki berriaren artean sortutako tentsioak. Horiez gain, urteek aurrera egin ahala, beste hainbat tentsio-bide sortu zen. Faktore multzo horrek nazioarteko gizartearen erritmo eta etorkizuna moldatu zituen bakearen utopia eta gerra berri baten beldurraren artean.

2.1. *Gerraosteko lehen urteetako krisi eta berrantolaketak (1919-1923)*

Gerra Handiaren osteko urteetan, krisia eta ezegonkortasun sakona nagusi izan ziren. Bake-itunak negoziatzeko, zehazteko eta aplikatzeko prozesu luzeaz gain, Europan eta Europatik kanpo, bake-hitzarmenek konpondu gabe utzi zituzten hainbat auzi zegoen. Konpondu gabeko horietan garaile eta garaituen arteko tentsio ugarietz gain, garaileen artean desadostasunak ere baizeuden bakea ulertzeko eta administratzeko moduan. Gerrak deuseztatu zuen normaltasuna berriro ezartzeko eta berreraiketari ekiteko zailtasun ekonomikoek ezegonkortasun-sentsazio hori areagotu zuten.

Lanari 1920an ekin zion Nazioen Elkarte hark, nazioarteko gizarte berriaren epizentroak, nazioarteko bizitzaren foro nagusi bilakatu behar zuen, bai eta bakearen defentsaren gotorleku nagusi ere. Hala ere, Nazioen Elkartearen balio eta prozedurek herrialde kideen anbiguotasunari aurre egin behar izan zieten; izan ere, potentzia handiek batik bat, Genevako Ituna baliatzeaz gain, etengabe ekin zioten ohiko jokabide diplomatikoari eta horrek Elkartearen jardura eta sinesgarritasuna zalantzan jarri zituen.

Bakearen eraiketan sortu ziren zailtasunen artean, mugen arazoak toki berezia bete zuen, bai Nazioen Elkartearen eta bai kantzelaritzen agendan ere. Ez da harritzekoa gai horrek lehentasuna hartu izana, gogoan izanda Europako eta Europatik kanpoko maparen berrantolaketan handitasuna eta nazioen arazoaren garrantzia. Genevako erakundea, bake-itunen esanei jarraituz, zenbait lurralderen nazioarteko administrazioa kudeatzen hasi zen berehala, esate baterako, Sarre land-arena, non 1922an gobernu-botereak bereganatu zituen batzorde bat eta kontseilu aholkulari bat ere sortu baitziren; edota Dantzig hiriarrena, zeinari goi-komisario bat eman baitzitzaion autoritate nagusi gisa, berezko Dieta eta Senatua bazituen ere. Tratatuak ezarritako lurralde-klausulak betetzeko, Nazioen Elkarteak mandatuak antolatu zituen 1920 eta 1922 bitartean; mandatuak Alemaniak arestian Afrikan eta Pazifikuan zituen

lurraldeetan ezarri ziren, bai eta Otomandar Inperioaren menpekoak izan eta independentzia lortu ez zuten arabiar lurraldeetan ere.

Arrakasta handiago edo txikiagoarekin egin zioten aurre Genevako erakundeek gehienetan muga ezarri berrien ondorioz sortu ziren gatazken konponketa baketsuari. Lehen saio horietatik ondoriozta dezakegu Elkartearen jardunak espero zitekeenarekin bat egin zuela potentzia handien adostasuna lortzeko bidea zegoenean edota auziak potentzia handien edo haien aliatuen interes zuzenei eragiten ez zienean soilik. Hala gertatu zen Finlandia eta Suediak Aaland Uharteen inguruan zuten gatazkan 1921ean, finlandiar subiranotasuna onartu arren biztanleriaren autonomia aitortu zenean; edota 1922ko maiatzean Alemaniak eta Poloniak Silesia Garaiko lurraldeak banatu zituztenean.

Bestalde, potentzia handiek adostasunik lortzen ez zutenetan eta haien interesak zuzenean edo zeharka tartean zirenetan, nazioarteko erakunde berriaren mugak agerian geratu ziren. Horren adibide argia da Vilna poloniar hiria 1922an anexionatu zeneko modua, Polonia handia lortzeko nahian ez baitzen inolako bitartekotzarik onartu. Txekoslovakia Teschen eskualdea bereganatzeko izandako gatazka edo Rigako Itunarekin amaitu zen Errusia boltxebikearen liskarra logika politiko beraren emaitza izan ziren. Era berean, Albaniako mugak zehazteak Italia eta Grezia artean eragin zuen krisiaren garapena aipa genezake; haren ondorioz, Italiak Korfu bonbardatu eta ondoren okupatu zuen 1923ko abuztuan. Bake-negoiazioetan Italiak Adriatikoan zituen nahi irredentistak bete ez izanak Genevak ezarritako bi-deetatik kanpo gauzatu zen politika errebisionista sustatu zuen sarritan. Horrela ulertu behar dira, bada, Italiak Albania bere eraginpean ezartzera bideratu zuen Albaniarekiko atzerri-politika, eta Jugoslavia estatu sortu berriarekin izan zituen harreman tirabiratsuak (Fiumeko gatazkaren ostean are larriagoak bilakatu zirenak), Mussolinik azkenean okupatu zuen arte.

Mugen arazoari estu lotuta zegoen gutxiengo nazionalen arazoa, batez ere, Europako erdialdean eta ekialdean, non alemanak eta hungariarrak (ordena zaharrean gehiengo osatzen zutenak) gutxiengo bilakatu baitziren zenbait herrialde berritan, Polonian, Jugoslavian edo Txekoslovakian esate baterako; eta baita arestiko Otomandar Inperioaren lurraldeetan ere, non kurduen edo armeniarren arazoa sortu baitzen. Nazioen Elkartearen III. Asanbladak gutxiengoaren eskubide eta betebeharrei buruzko printzipio-deklarazio orokor bat onartu zuen, Elkartearen gida bilakatuko zena. Haren lorpenak nabarmenak izan ziren. 20ko hamarkadan gutxiengoaren inongo arazok ez zuen bakea arriskuan jarri.

Elkartearen sorreratik, lehentasunetako bat izan zen segurtasun kolektiborako sistemaren mekanismo eta prozedurak hobetzea; beti ere, itunak maila arau-emailean zituen hutsuneak betetzeko eta kideen tirabirak eta aktoreen faltak (aktorerik gabe ez baitzen segurtasun-sistema eraginkorrik eraikiko) erakundeari eragiten zizkion arazo larriei erantzuteko. Segurtasun-sistema kolektiboa hobetzeko eztabaidak, funtsean, elkarren kontra zeuden bi

tesi izan zituen abiaburu: batetik, segurtasuna lehenesten zuen tesi frantsesa, Europa kontinentaleko hainbat herrialde ere barnean hartu zituena —batez ere, Parisen orbitan zeuden herrialdeak—; eta, bestetik, tesi anglosaxoniarra, Britainiar Inperioaren menpekoak bildu zituena eta betebeharrak gehiago bere gain hartzea errefusatzeari gain, desarma bultzatu nahi zuena.

Auzi militarrek eta itsasoko zein aireko armadekin lotutakoak landuko zituen Kontseilu Aholkulari Iraunkorrek (izaera teknikoak zuenak) bere gain hartu zituen lan haiek, bai eta armamentua murrizteko Aldi Baterako Batzorde Mistoak ere. Azken horrek izaera politiko zabalagoa zuen eta 1922an desarmarearen aldeko proposamen bat aurkeztu zuen, XIV. Erabakiarekin gauzatu zena eta segurtasunarekin ageriko loturak zituena. Aurretiko lan haiek Elkarri Laguntzeko Hitzarmena ekarri zuten (1923an Asanbladan aurkeztu zena), eta, Frantziaren eta bere aliatuen babesaren bidez, Britainiar Inperioak erreparatu gehiago zituen. Proposamen horrek berme orokorra ezartzea eta desarma proposatu zituen aldi berean; baina porrot egin zuen anglosaxoiak, Estatu eskandinaviarrak eta Holanda haren kontra agertu zirelako.

Paxton-ek dioenez, bakea eraiki zeneko baldintza eskas haietan diplomazia frantziarrak bi norabidetan bideratu zuen bere estrategia: batetik, bake-itunak zehazki bete zitezkeen eta segurtasun kolektiboaren mekanismoak hobeto zitezkeen arduratu zen; bestetik, ohiko praktika diplomatikoak erabiliz, Gerra Handiaren aurreko bermeak nolabait berrezarriko zituen aliantza-sistema sortzeari ekin zion. Frantziak, Belgikarekin aliatzeari gain, Europako ekialdean sortu berriak ziren hainbat estaturekin aliantzak bilatu zituen (herrialde haiei bake-negoziaketan lagundu zien), Errusiak utzitako hutsunea bete zezaten. Frantziak ehundu zuen sare diplomatikoak (zenbait autorek «atzeguardiako aliantza» izendatuak) Poloniara zuzendu zuen begirada eta harekin 1921ean isileko hitzarmen militarra sinatu zuen; bai eta Entente txikira (Txekoslovakia, Errumania eta Jugoslavia) ere, zeina Trianongo Itunarekin *statu quo* berria defendatzeko sortu baitzen, 1920 eta 1921ean. Parisek Entente txikiarekin izango zituen loturak geroago gauzatu ziren, haren Balkanetako politika argiago zehaztu zenean. Horrela, konpromiso diplomatiko eta militarrek hartu zituen Txekosloveniarekin 1924 eta 1925ean, Errumaniarekin 1926an eta Jugoslaviarekin 1927an.

Ekonomia normalizatzeko zailtasunak eta zenbait herrialdek berreraiketari ekiteko topatu zituzten oztopoak gerraosteko beste auzi erabakigarri batekin estu lotuta egon ziren: kalte-ordainekin. Kalteak ordaintzea, azken finean, gerraren ostean potentzia handiek zuten kanpo-zorraren atal bat zen, aliatuek haien artean zeuzkaten zorrekin batera. Versaillesko Itunaren 231. artikulua gida-lerro zehaztugabeak ezarri zituen gai horren inguruan, gaia geroago eztabaidatzeko; lerro horien artean, 1920ko urtarrilaren 1ean 20.000 milioi marko ordaintzeko beharra zegoen, bai eta Kalte Ordainen Batzorde bat sortzeko agindua ere. Batzorde horrek garaileei ordaindu beharreko zenbatekoa zehazteko eskumena izango zuen.

Weimarko Errepublikak gazte eta ezegonkorrean Versaillesko klausulak betetzeari oztopoak jarri zituzten politika egin zen. Kalte-ordainei dagokienez,

lankidetzaren falta eta ordainketa berandutzea izan ziren nagusi, eta garaileen arteko desadostasunei probetxua ateratu zieten. 1920ko uztailean, Spa-ko Biltzarrean agerian geratu ziren desadostasun horiek. Orduko hartan aliatu izan zirenek lortu zuten akordio bakarra jasoko zituzten kalte-ordainen ehunekoa zehaztea izan zen. Hau da adostu zuten banaketa: Frantziak %50 jasoko zuen, Britainiar Inperioak %22, Italiak %10, Belgikak %8, eta gainerakoa Greziak, Errumaniak, Jugoslaviak, Japoniak eta Portugalek banatuko zuten.

1921eko Londresko Batzarraren ostean Alemaniarekin adostasunik lortu ez zenez, zenbait hiri alemaniar okupatu zen (Düsseldorf, Ruhrort eta Duisburg); modu horretan, gerora gertatuko zen Rhur eskualdearen okupatzeari aurrekari bat ezarri zitzaion. Kalte-ordainen zenbatekoa urte hartako apirilean Londresen egin zen konferentzia batean ezarri zen azkenik, 132.000 milioi marko-urre. Azkenik, alemaniarrek aliatuek ultimatum gisa aurkeztu zituzten eskaerak onartu zituzten 1921eko maiatzaren 11n.

Alemanien egoera ekonomikoa okerrera joan zen, eta horrek zorraren ordainketa eragozti zuen, hortaz, ordainketa atzeratu egin zen. Kalte-ordainen onuradun nagusia zenak, hau da, Frantziak, atzeratu haien aurrean jarrera zorrotza agertu zuen eta alemaniar gobernuak gaitz ustez jokatu zuela salatzen. Diru harekin Frantziak berreraiketara bultzatu nahi zuen, bai eta Britainia Handiarekin eta Ameriketako Estatu Batuekin egindako zorrak ordaindu ere. Kontserbadoreek, eta, batik bat, Raymon Poincarék, jarrera zorrotzari etsi gabe eusten bazioten ere, alderdi moderatuagoak ere bazeuden. Azken horien bozeramailea Aristides Briand zen, eta, haren ustez, errebantxa-mehatxuaren kontrako antidotorik onenak britainiarren eta frantziarren arteko elkartzasuna eta Alemaniarekiko elkarrekin ziren. Artean, jarrera bakegileak indarra hartu zuen Britainia Handian, non Keynesek gerraren ondorio ekonomikoei buruz idatzi zuen lanak iritzia publikoarengan eragin handia izan baitzuen. Britainia Handian uste zuten Alemaniak (gerraren aurretik merkatu britainiarraren bezero nagusi izan zenak) bide bakarra zuela kalteen ordainketari aurre egin ahal izateko: ekonomia berpiztea eta nazioarteko merkaturaren berriraketa.

1922ko uztailearen 12an, Cuno alemaniar kantzilerrak adierazi zuen Alemania ez zela gai ezarri zitzaizkion ordainketak egiteko eta sei hilabeteko luzamendua eskatu zuen. Londresko eta Parisiko gobernuak ez zetozen bat; lehenengoa kalte-ordainen ehunekoa jaistearren eta luzamendua onartzearen aldekoa zen, bigarrena —Poincaré gidari zuela— amore ematearen kontra agertu zen. Horren ondorioz, 1923ko urtarrilaren 11n tropa frantziar eta belgikarrak Rhur-en sartu ziren. Alemaniako autoritateek erresistentzia pasiboa agindu zuten langileei eta funtzionarioei; eta, bitartean, frantziar gobernuak tropa eta langile frantses eta belgikarrak bidali zituen, moneta berria sortu zuen, eta eskualdetik 145.000 aleman kanporatu.

Azkenik, bakea eraikitzeko arazoez gain, gerraosteko nazioarteko harremanek izan zuten beste fronte gatazkatsua Errusiari zegokiona zen; hots, mundu kapitalista eta Errusia iraultzailea elkarrekin egokitzeko edo batera existitzeko formularen beharra. Estatu kapitalistek *osasun-kordio* edo zirika-

tze-politika egin zuten hiru bide nagusi erabiliz: bide militarra, *errusiar zurien* alde esku hartu zuten; lurraldetasun-estrategia, Errusia gainerako Europatik isolatzeko Estatu independenteen multzoa sortu baitzuten; eta bide diplomatikoa, *kapitalisten fronte bateratua* osatzen saiatuz. 1920an amaitu zen gerra zibilaren ostean, Foch mariskalak proposatu zuen *osasun-kordioaren* politikak indarrean jarraitu zuen, Frantziak eta Britainia Handiak laguntza diplomatiko eta materiala eman baitzioten Errumaniari eta Poloniari. Artean, azken bi horiek Errusiarekin mugen inguruko gatazkak zituzten.

Henry Kissinger-en esanetan, Brest-Litovsk-eko Itunaren oinarrian bertan suma zitekeen agintari boltxebikeek mundu kapitalistarekin batera existitzeko taktika onartu zutela. Leninen iritziz, boltxebikeak alde bakarreko bakea sinatzean bi alderdi inperialisten areriotasunaz baliatu ziren eta, aldi berean, alderdi inperialistek haien (boltxebikeen) kontra ekintzak adosteko zailtasunak ezarri zituzten. 1920tik aurrera, erretorika iraultzailea zena zela ere, are nabariagoa izan zen Mendebaldearekiko politika tradizionalagoa hartu zutela. Sobietar estatu berriak bizirauteko nahian interes nazionalari eman zion lehentasuna eta hari *egia sozialistaren maila* eman zion; hori guztia lortzeko taktika *Mendebaldearekin batera existitzea* zen. 1920tik aurrera, boltxebikeen atzerri-politikak Estatu baltikoak sobietar bihurtzen saiatzeari utzi zion aldi baterako, nahiz eta Curzon lerroarekin eta Besarabiako egoerarekin ados egon ez.

1921eko udazkenetik aurrera, nazioarteko isolamendua gainditzeko helburua zuten inizatibei ekin zieten, Ekonomia Politika Berriak modu positiboan ikusten zuen aukera baitzen. Egoera horretan sinatu zuen Britainia Handiarekin lehen akordio komertziala (Adiskidetasun-ituna) 1921ean eta 1922ko apirilean. Azken hori Genovako Konferentziaren testuinguruan gauzatu zen, non tsarraren inperioaren zorren auzia arrakastarik gabe eztabaiatu zen. Akordio horrekin, Alemaniak bere industria militarri zeregina eta babesa eman zizkion, eta nazioarteko ordena berrian baztertuta zeuden bi potentzia handi harremanetan jarri ziren. Lorpen diplomatiko horien ostean, 1924an, Britainia Handiak ofizialki onartu egin zuen sobietar estatu berria eta atzerri-harremanak normalduz joan ziren pixkana. Hala ere, horrek ez zituen mendebaldekoen mesfidantzak lausotu eta Komintern-ek bultzatu eta predikatzen zituen itxaropen iraultzaileak ez ziren aldatu.

2.2. Bakearen ilusioa «Genevako espirituaren» garaian (1924-1929)

Bigarren epe honetan, badirudi nazioarteko gizarteak Genevako ilusioek babestuta egin zuela aurrera. Gerraosteko lehen urteetako krisia gaindituta, nazioarteko harremanak orokorrean hobetuz zihoazen, eta nazioarteko ordena berriak (formetan bederen) zehaztutako gida-lerroek nolabaiteko normalizazioa ahalbidetu zuten. Gerrarteko aldiaren bigarren epe hori krisi ekonomiko sakon batekin amaitu zen. Garai hartan, Nazioen Elkarteak no-

labaiteko oreka harmonikoa lortu zuen Estatuaren interesen eta erakundeak zituena helburu nagusien (bakea zaintzea eta suspertzea) artean. Urte haietan, nazioarteko harremanak *Genevako espirituak* ezarritako bideetatik gauzatu ziren (Robert de Traz-ek 1929an argitaratu zuen lanaren izenburua erabiliz), eta bazirudien gerraosteko arazo handien konponbidea aurkituko zela.

1924tik aurrera nazioarteko harremanetan nagusitu zen klima lasaia hainbat aldagairi esker lortu zen. Lehenik, egoera ekonomiko onak berreraikitze- eta normalizatzeko-urteei eman zion amaiera, eta aliatuen arteko zorren arazoari eta kalte-ordainen arazoari irtenbide egokia aurkitzeko aukera eman zuen. Bigarrenik, ulermenaren diplomazia gauzatu zuten estatu-politikarien multzo bat indarrez sartu zen nazioarteko eszenan. Bereziki azpimarragarriak dira horien artean hiru hauek: Aristides Briand frantsesa, 1925-1932 artean Atzerri Arazoetako ministro izan zena; sir Austen Chamberlain britainiarra, 1924-1929 artean Foreign Office-ko idazkaria; eta Gustav Stresemann alemaniarra, Atzerri Arazoetako ministroa 1923tik 1929ra. Hirugarrenik, potentzia handien arteko harremanak orokorrean hobetu egin ziren: Londresek eta Parisek jarrerak hurbildu zituzten; Frantzia eta Alemania hobeto konpondu ziren elkarrekin, nahiz eta horrek alemaniarren gogo errebisionista desagerrarazi ez; gainera, Nazioen Elkartetik kanpo zeuden potentzia handiek (Ameriketako Estatu Batuek eta Sobietar Batasunak) jarrera harkorragoa agertu zuten, eta, lankidetzaren teknikoaren esparruan behintzat, erakunde harekin lankidetzan aritzeko prest egon ziren. Laugarrenik, egoera jakin haren araberrakozkoak ziren faktoreak dauzkagu, besteak beste, 1924an Britainia Handian eta Frantzian, joera bakezale eta ezkertiarreko indar politikoak heldu ziren gobernura, eta, beraz, Edouard Herriot politikari erradikalaren eskutik edota Ramsay MacDonald buruzagi laboristaren eskutik bi potentzia demokratiko haien arteko desadostasunak gainditzea errazagoa suertatu zen.

Faktore multzo horrek (garrantzia izan zuen faktore multzo bakarra ez bazen ere) segurtasun kolektiborako sistema berrindartzeko eta nazioarteko lankidetzaren bultzatzeko ingurune hobezina ahalbidetu zuen. Bakearen auzi gatazkatsuei irtenbideak emateko orduan *statu quoa* gordetzeko eta berrikus-teko jarrera posibilistagoak hartu izanak eman zion distentsioari oinarri edo funtsa. Distentsio hori aztertzeko, segurtasun kolektiboaren plano orokorra aztertuko dugu, bai eta egoera ekonomikoaren eraldaketa eta kalte-ordainen auzi korapilatsuan egin ziren aurrerapenak ere.

Segurtasun kolektiborako sistemak zituen hutsuneak leuntzeko ahaleginei dagokienez, 1924. urtean Herriot eta MacDonald-ek Europako diplomaziaren espiritua aldatzeko egin zuten saioak huts egin zuen, izan ere, bi horiek garaileen koalizioa Genevako erakundearen inguruan antolatutako nazio-familia zabal batekin ordezkatu nahi izan zuten. R. O. Paxton-en esanetan, botere-politikarako sistema tradizionalaren ordezkari, nazioarteko gatazkak era baketsuan konpontzeko lege-prozedura bat ezartzeko azken saiakera izan zena, hots, *arbitrajea, desarmea eta segurtasuna* ardatz nagusitzat zituen Genevako Protokoloa (hau da, *Nazioarteko gatazkak era baketsuan arau-*

tzeko protokoloa) ezartzeko azken saiakera, britainiar kabinete kontserbadore berriak protokolo hura atzera botatzearekin batera gauzatu zen.

Berriro ere, agerian geratu zen Londresek ez zuela konpromiso unibertsal berririk hartu nahi eta nahiago zuela interes komunak zituzten estatuen arteko eskualdeko akordio esplizituagoak lortu. Britainiar gobernuak —berriro ere Berlin eta Parisen artean bitartekaritza-lanak eginez— Rhineko muga bermatu beharra azpimarratu zuen. Austen Chamberlainen proposamena ondo hartu zuten Aristides Briandek eta Gustav Stresemannek, eta aurretiazko elkarrizketa haiek 1925eko urrian Locarnon egindako biltzarrean burutu ziren. Locarnoko Itunaren hitzaurrearen arabera, Estatu sinatzaileek zenbait konpromiso hartzen zuten: distentsio orokorra zaintzea, arazo ekonomiko eta politikoak konpontzea eta Elkartearen barruan desarmearen alde lan egitea. Locarnoko Itunak bost itun hartu zituen barnean: Rhineko Ituna, Alemaniak, Belgikak, Frantziak, Britainia Handiak eta Italiak sinatu zutena eta 1919ko mendebaldeko mugak eta desmilitarizatutako eremua bermatzen zituen; gainerako hitzarmenak Alemaniak Belgika, Txekoslovakia, Frantzia eta Poloniarekin banaka sinatu zituen arbitraje-itunak ziren.

A priori, Locarnok Alemaniari nazioarteko gizartean berriro sartzeko baimena eman zion, 1926an Nazioen Elkarteko Kontseiluko kide iraunkor bilakatu zenean berretsi zena; halaber, Berlin eta Parisen arteko kontaktuetan eta hamarkada osoan nazioarteko harremanetan nagusitu zen distentsiorako bidean funtsezko pausua izan zen itun hura. Hala ere, Locarnoko akordioek ez zituzten ezkutatu segurtasun kolektiboaren sinesgarritasunerako, zalantzarik gabe, kezkarriak ziren zenbait inertzia. Lehenik, potentzia handiek akordio hura lortzeko erabili zuten bideak potentzia horiek Elkartearetik zuten jokaera anbigua berretsi zuen. Locarno, benetan, Genevak legez-tatu-koarekin bat zetorren, baina itun hura lortzeko formula tradizionalak erabili ziren, isilpean eta Kontseiluak jakin gabe lortu baitzen; eta horrek potentzia certain eta txikien mesfidantza eragin zuen. Nazioarteko praktika ezberdin horiek elkarrekin bizi ziren eta, epe horretan, hainbat motatako tratatuak ekarri zituzten: ohiko aliantzak; Locarnokoaren pareko konpromiso bereziak, aliantzak bezain derrigorrezkoak ez zirenak; eta Nazioen Elkarteko Ituna eta hortik eratorritako legedia. Bigarrenik, Locarnoko Itunek Versaillesko bakea debalatu zuten, eta Stresemannen *errealizazio*-politika errebisionista berretsi. Itunek bi motatako mugak onartu zituzten: mendebaldekoak, Alemaniak onartuak eta gainerako potentziek bermatuak; eta ekialdekoak, Berlinek onartu ez zituenak eta inolako berme kolektiborik ez zutenak. Errebisionismo alemaniarra estalita geratu zen Nazioen Elkartean sartzeko moduan bertan, izan ere, segurtasun kolektiboarekiko konpromisoa mugatu egin zuen 1926ko apirilaren 24an Sobietar Batasunarekin ituna sinatu zuenetik. Itun horrekin, bietariko batek eraso politiko-militar zein ekonomikoa jasotzen bazuen, bestea neutrala izango zela bermatzen zen.

Genevako erakundeen baitan, segurtasun kolektiborako sistema hobetzeko eta bakea finkatzeko ahaleginek aurrera egin zuten. 1927an Arbitraje

eta Segurtasunerako Batzordea sortu zen nazioarteko krisien aurrean Elkartearen funtzionamendua hobetzeko bideak aztertzeko. Batzorde haren lanaren emaitza Arbitraje Akta Orokorra izan zen. Halaber, desarmek jauzi kualitatiboa eman zuen 1925ean Desarme Batzarra prestatzeko Batzordea sortu zenean; horren zeregina Batzarrerako data erabakitzea eta prestatze-lanak burutzea zen eta Ameriketako Estatu Batuek eta Sobietar Batasunak parte hartu zuten hartan. Hala ere, armamentua murrizteko lanetan aurrerapen handiagoak egin ziren foro txikiagoetan eta Nazioen Elkartetik kanpo. Hala gertatu zen Itsasoko Arazoei buruzko Konferentzietan, Washingtonen 1921ean eta 1922an egindakoetan bereziki; horietan Ekialde Urruneko *statu quo* berria arautzeaz gain, gerra-armada nagusien hierarkia-ordena erabaki zen ehunekotan.

Nazioarteko gatazketan Nazioen Elkartek izan zuen esku-hartzeak ildo horretatik jarraitu zuen, European zein Europatik kanpo potentzia handien borondateak baldintzatuta. Horrela, *Monroe doktrinak* kontinente hartan izan zuen eraginak hainbat mesfidantza sortu zuen Amerikako errepubliketan. Garai hartan, bakea finkatzeko lanetan gertaera gogoangarrietako bat izan zen, zalantzarik gabe, Parisko Ituna, edo Briand-Kellog Ituna, sinatzea (1928ko abuztuaren 27an). Aristides Briandek bi aldeko akordio gisa proposatu zion Ipar Amerikako Administrazioari, eta Frank B. Kellog Ipar Amerikako estatu-idazkariak ezarpen unibertsala izango zuen adierazpen orokor baten alde egin zuen. Gerrari uko egiten zion itunak eta Ipar Amerikako senatari batek *nazioarteko musu* izena eman zion. Briand-Kellog Itunak balio moral bat ezartzen zuen ororen gaintetik, eta gehiengoak printzipio-deklarazio gisa hartu zuen, ez kontratuko betebeharrak gisa. Hasiera batean Alemaniak, Ameriketako Estatu Batuek, Frantziak, Britainia Handiak, Japoniak eta Italiak sinatu bazuten ere, onarpen ia unibertsala lortu zuen gerora.

Europak bizi zuen krisi orokorrari irtenbidea emateko ekimen berri eta adierazgarrienetakoa sortu zen European bertan. European integrazioa bilatu zuten ideien babesean, horien artean Koudenhove-Kalergi kondearen lana (*Panropa*, 1923an argitaratua) azpimarragarria izanik, Aristides Briand ministro frantsesak European Batasun Federalerako Memorandum ospetsua aurkeztu zuen 1930ean. Horretan, segurtasunaren arazotik bereizteza den batasun ekonomikoari lehentasuna eman zitzaion, eta, halaber, Europako estatuen batasun politikoari ekiteko beharra azpimarratu zen. Egitasmo hark, agian ausartegia eta goiztiarregia zenak, ez zuen aurrera egin ekonomia kontra zuen testuinguruan eta berezitasun nazionalak itota zegoen European.

Azkenik, aukera ekonomikoak hobetzean kalte-ordainen eta aliatuen arteko zorren ordainketaren arazoei irtenbidea ematea errazago gertatu zen. 1924aren amaierara arte luzatu zen Rhur-en okupazioa eta horrek ondorio ekonomiko negatiboak izan zituen Frantzia eta Alemaniarentzat; gainera, kalte-ordainen arazoari aurre egiteko neurri militarrek hartzeak eraginkortasun txikia zuela agerian geratu zen. Stresemann gobernura heldzea erabakigarria izan zen krisia gainditzeko. II. Mundu Gerraren ostean aurkitu zen

1925eko irailaren 7ko memorandum batean ageri denez, Stresemannen politika errebisionistak honela zehazten zituen lehentasunak: kalte-ordainen arazoa konpontzea, Alemaniako mugez kanpo zeuden alemaniarrak babestea eta ekialdeko mugak berrantolatzea.

Ipar Amerikak proposatuta, Kalte Ordainen Batzordeak izendatutako ekonomia-adituen talde batek aztertu zuen kalte-ordainen arazoa. Charles G. Dawes buru zuen aditu-batzorde horrek 1924ko maiatzaren 11n txosten bat aurkeztu zuen. Aliatuek eta Alemaniak Dawes Plana izena hartu zuen kalte-ordainen plan hori onartu zuten. Alemaniaren benetako ordainketa-ahalmena abiaburu izanik, 1.000 eta 2.000 milioi marko bitarteko zenbateko aldakorra izango zuten bost urteroko ezarri zitzaizkion. Alemaniak plan hori onartzea beste aukerarik ez zuen, Rhur ebakua zezaten lortzeko, bai eta kalte-ordainketa egiteko zein industria berri behar bezala hornitzeko behar zuen kapitala Ameriketako Estatu Batuek eta Britainia Handiak eman ziezaioten ere. 1930. urtera arte, Alemaniak garaiz ordaindu zituen urteko kuotak (guztira 7.000 milioi marko-urre baino gehiago); horrela, aliatuek elkarren arteko zorrei aurre egiteko aukera izan zuten eta Ameriketako Estatu Batuek zor horien ordainbidea malgutu zuten.

Plana amaitzear zegoenean eta Alemaniak urteko kuotaren maximoa lortu zuenean, kalte-ordainketaren behin betiko arautze eta prozedura zehazteko lanei eta negoziazioei ekin zieten. Stresemannek, abileziaz, negoziatio-mahaiaren gainean jarri zuen ordain gisa Renaniaren behar baino lehenagoko ebakuazioa. Negoziaketak adituen batzordearen lanarekin batera amaitu ziren. Batzordearen burua zen Owen D. Young-ek 1929ko ekainaren 7an plan berri bat aurkeztu zuen. Young Planak ezartzen zuenaren arabera, Alemaniak 59 urtez ordaindu beharko zuen 1.900 milioi marko-urre urtero, Kalte Ordainen Batzordea desagertuko zen eta kalteen ordainketa bete zedin kontrolatuko zuen nazioarteko banku bat sortuko zen. 1930eko maiatzaren 17an jarri zen indarrean plan berria, eta, aste batzuk beranduago, aliatuen tropak Renaniatik atera ziren. 1929ko burtsaren krak bortitzak eta krisi ekonomiko orokorrak astindu zuten testuinguru ekonomikoa, eta, beraz, Young Planak ez zuen eragin praktikorik izan. Horrela, 1932ko iraileko Lausanako Biltzarrean alde batera utzi zen behin betiko kalteen ordainketaren plana, eta potentzia aliatu izan zirenak Ameriketako Estatu Batuek zorrak kita ziezazkieten saiatu ziren.

Hamarkadaren amaierarekin gertatutakoek Genevako utopiarekin batera sortu zen esperantza aldi hartako itzaropen baikorrak ilunduko zituzten hodei beltzak ekarri zituzten.

2.3. *Gerraosteko nazioarteko ordenari egindako erronka errebisionistak (1930-1936)*

Hamarkada batetik bestera igarotzean, nazioarteko itzaropenek aldaketa nabaritu zuten apurka-apurka; krisi ekonomikoa hedatuz zihoala, aurreko ur-

teetako baikortasuna deuseztatuz joan zen, Estatuetan eta nazioarteko sisteman bertan. Jean-Baptiste Duroselek azpimarratu zuen bezala, hamarkadaren lehen urteetan desengainua eta ezkortasuna sendotuz joan ziren, segurtasun kolektiboaren itzaropenerako txoko bat geratu bazen ere. Pierre Renouvin-ek ere hala ikusten zituen gauzak, eta honela deskribatu zuen egoera hura: «1929aren hasieran, nazioarteko harremani dagokienez, iritzia baikorra zen nagusi. Baina badaezpadako baikortasuna zen, etorkizun hurbiletik haratago pentsatzean agintarien artean kezka lauso bat desagerrarazten ez zuena. Badaezpadako sentsazio horren sakoneko arrazoiak, zalantzarik gabe, Estatuaren arteko harremanak antolatzeke saiakeren porrota zen».

Segurtasun kolektiborako sistemaren krisia, hamarkada hartako hasierako urteetan lehen erronkak izan baitzituen, Versaillesen sortutako ordena haren krisia baino ez zen. Gerraren osteko nazioarteko sistemak jasan zituen erronkak krisi-testuinguru orokorrean gauzatu ziren, zeinetan izaera eta jatorri askotako prozesu eta sintomak batu baitziren.

Lehenik, krisi ekonomikoa daukagu, 1929ko urriaren 24an hasi zen hura, New Yorkeko burtsaren *krakarekin* batera, eta Europako ekonomian garratzasun itzelez zabaldu zen 1931tik aurrera. Hura izan zen krisi orokorraren lehergarria, eta europarrek Gerra Handian zehar halakorik sumatzeko aukera izan zuten. European, Austria izan zen nazioarteko ekonomiaren anabasaren lehen biktima, Creditanstalt-ek behea jo eta Alemaniarekin aduanak batzeko egitasmoak porrot egin zuenean. Handik gutxira, Darmstandter Bank-en kiebrarekin Alemaniak krisiaren laztasunak pairatu zituen. Britainia Handian, krisiarekin alde batera utzi zen urre-patroia, libera esterlinaren bihurtasuna kaltetu zen, eta librekanbismoaren amaiera heldu. Artean, Frantziaren krisiaren eraginak atzeratu ziren, baina, gainerako herrialde industrializatuak baino motelago suspertu zen gero. Gerran sortutako kalteak ordaintzeko planak porrot egin zuen, bai eta 1933ko ekainean Londresen egin zen Ekonomiari buruzko Mundu Biltzarrean proposatu ziren joera liberaleko eta alde anitzeko lankidetzaren aldeko gomendioak ere. Biltzar haren porrota irtenbide nazionalisten eta aldebakarrekoen garaipenaren adierazpen argia izan zen, bai eta nazioarteko merkatua uzurtu eta zatikatu zenaren adierazpena ere; izan ere, nazioarteko merkatuan joera autarkikoko irtenbideak azaleratzen hasi ziren.

Bigarrenik, krisi ekonomikoak 30eko hamarkadako demokrazien krisi politikoan eragin zuzena izan zuen. Jean-Baptiste Duroselleren esanetan, aurretik egon bazegoen desoreka bat sakondu egin zen urte horietan; hots, guztiz baketsuak baina ahulak ziren demokrazien eta izaera totalitario eta autoritarioa zuten demokrazien arteko desoreka. Azken horiek, nazioko interesen alde egiteko asmoz, indarrean zegoen *statu quo*a aldatu nahi zuten.

Hirugarrenik, krisi-sentimendu orokor hori Nazioen Elkartean bertan sartu zen. Genevako *espirituen* hondatze nabari eta geroz eta handiagoak potentzia handiak eta txikiak ohiko forma diplomatikoak berreskuratzera bultzatu zituen. Potentziok Genevako legearekiko formalitateak gordetzen bazituzten ere, nazioarteko erakundearen sinesgarritasun-galera agerikoa zen.

Eta, labur esanda, gure analisisia nazioarteko sistemak jaso zituen erronketan kokatuz (zehazki esanda, segurtasun kolektiboaren printzipio eta mekanismoek jaso zituzten erronketan), prozesu hori guztia bideratu zuen tentsio-lerroa Versaillesko ordena defendatzen zutenen eta gerraosteko *statu quo*aren errebisionisten arteko dialektika izan zen (gainera, muturreko bi joera horien artean hainbat *ñabarduratako* joerak zeuden). Zalantzarik gabe, faxismo/antifaxismo dialektikarekin bat egiten zuen Genevako foroak jasan zuen bipolarizazioak. Alde batetik, potentzia *faxisten* bultzada errebisionista ageri zen; eta bestetik, potentzia demokratikoen euste-nahia. Azken hauen ingurura hurbildu zen Sobietar Batasuna une horretan, estrategia *frontepopulista* eta *komunismoa herrialde bakarrean* defendatzen zuen tesiari eutsiz.

Garai hartan eta aurreko edozein mementotan ez bezala, Nazioen Elkarteak eta Versaillesko ordenak jasan zituzten erronka errebisionistak potentzia handien eskutik heldu ziren: Asiako baten, Japoniaren, eta Europako biren, Alemania eta Italiaren eskutik, hain zuzen ere.

Aldi kritiko honen lehen kapituluan, Ekialde Urruneko indarren oreka aldatu egin zen. Frank P. Walters-en esanetan, Japoniaren eraso, Mantxuriaren okupazio militarrekin gauzatu zena, potentzia handi batek Itunaren oinarri moral eta politikoei egindako lehen erronka handia izan zen. Japoniaren posizioak bazuen Alemania eta Italiarenarekin zenbait antzekotasun, izan ere, haren nazioarteko tokia hesituta zegoela sentitzen zuen, eta, inguruko eskualdearen *statu quo*a bere interesen alde eraldatzeko, politika nazionalista oldarkorrari ekin zion. Tokiok 1931ko irailaren 18an hasi zuen indar-ekintzak, 1932ko martxoan Mantxukuoko *txotxongilo-estatu*aren sorrera ekarri zuenak, Briand-Kellog Ituna eta bederatzi potentzien ituna haustea ekarri zuen. Azken horretan, Japoniak Txinan *ate irekiaren printzipioa* onartu baitzuen, bai eta haren lurralde-osotasuna errespetatzea ere.

1931ko irailaren 19an, gatazkaren berri heldu zen lehenengoz Nazioen Elkartearen Kontseilura. Bi egun beranduago, txinako gobernuak Elkartearen erakundeek bitartekotza egin zezaten eskatu zuen 11. artikuluari jarraiki. Elkarteko kide ziren potentziek, Britainia Handiak bereziki —*a priori*, auzi horretan interes handienak baitzituen—, eta Elkartetik kanpoko potentziek, AEBek esaterako —Tokiok urratutako bi nazioarteko hitzarmen haietan berme-emailea baitzen—, Japoniaren erasoari eman zizkieten erantzunak oso ahul eta permissiboak izan ziren, eta ez ziren gaitzespen moraletik harago joan.

Kontseiluak Japoniari tropak atera zitzaion gomendatu zion; eta Yoshizawak, Japoniak Kontseiluan zuen ordezkariak, ihesbidez erantzun zuen, Japoniaren eskubideen defentsa azpimarratuz. Kontseiluak hartutako erabakiak antzuak izan ziren, eta, ondorioz, abenduaren 10ean Inkesta Batzorde bat sortu zen, lord Lytton ordezkari britainiarra presidente zuena eta Frantziako, Italiako, AEBetako eta Alemaniako ordezkariak ere bazituena. Batzordeak *in situ* aztertu zuen egoera, eta Pekinetik Genevara txosten bat bidali zuen 1932ko irailean. Txosten horren arabera Mantxukuoko estatu berriak ez zuen inolako oinarri legalik eta Japonia kondenatzen zuen eskura zeuzkan

bakezko bideak agortu gabe indarra erabili izanagatik, eta ez eraso-ekintza gauzatzeagatik. 1933ko otsailaren 24an Asanbladak txosten hura oinarrian zuen ebazpena onartu zuen, eta, handik hilabete eta gutxira, Japonia Nazioen Elkartetik kanporatu zuten.

Genevako erakundeek ez zuten *statu quo* berria onartu, baina, Edward H. Carr-ek hauteman bezala,

16. artikuluko zigorrak ezartzeko beharra ekarriko zuen erabakirik hartzea ekidin zuten. Potentzia handiek ez zuten zigorrak jartzeko aukera erabili nahi izan, eta horrek potentzia txiki eta ertainen artean jadanik existitzen zen mesfidantza areagotu zuen; mesfidantza hori ez zen Itunaren balio eta mekanismoekikoa, baizik eta *handien* fede onarekikoa.

Munduaren beste muturrean, Europan, bake-itunen agertoki naturalean, potentzia errebisionisten eta Versaillesko ordenaren defendatzaileen arteko pultsuaren kapitulu erabakigarriak gertatu ziren, eta, horren ondorioz, segurtasun kolektiborako sistemaren etorkizuna eta sinesgarritasuna erabaki ziren.

Weimar Errepublikaren krisiaren eta indar kontserbadore eta ultranazionalisten gorakadaren ondorioz, Alemaniaren errebisionismoaren eskaerak zorrotz egin ziren edukian eta forman. Estilo gero eta oldarkorrago eta irmoagoa hartu zuten aldarrikapenek eta joera hori gorenera heldu zen Hitlerren errebantxa-politikarekin, azken horrek 1933an boterea hartu zuenean.

Kalte-ordainen kapitulua amaitu eta Renaniatik tropa atzerritarrak atera zirenean, alemaniar errebisionismoak klausula militarrek eta segurtasunaren ingurukoak indargabetzera bideratu zituen ahaleginak, nahiz eta lurraldetasunari buruzko auziek eta mugaz bestaldeko gutxiengo alemaniarren gaineko ardurak kanpo-politikako agendan indarrean zeuden kapitulu izaten jarraitu.

Versaillesko Ituneko klausula militarren arabera, desarme orokorraren gelaurrea izan behar zuen Alemaniaren desarmeak. Ikuspegi honetatik, beraz, Desarme Konferentzia egitea Europako segurtasunerako kapitulu erabakigarria zen. Desarme Konferentzia, Nazioen Elkartearen zeregin ospe-tsuenetakoa, 1932ko otsailean hasi zen azkenik, eta Frank P. Walters-ek bi fase bereizten ditu: lehena, 1932ko otsaila eta abendua bitartekoa; bigarrena, 1933ko urtarrila eta urria bitartekoa.

Parisko Bake Konferentziatik egindako garrantzitsuena izanik, konferentzia horren prestatze-lanetan potentzien ordezkarien tesiak azaleratu ziren: alde batetik, frantziar tesiek lehentasuna ematen zioten segurtasunari desarmeari baino gehiago (Tardieu Plana eta Herriot Plana); bestetik, Alemaniaren eskakizunak (Bruning-ek adierazia) armamentuen parekotasuna eskatzen zuten. Bi mutur horien artean zeuden anglosaxoien proposamenak (Britainia Handiak John Simon Plana eta MacDonald Plana proposatu zituen, eta AEBek Gibson Plana eta Hoover Plana), eta askoz esplizitu eta zehatzagoak ziren edukietan; gainera, frantsesen eta alemanen posizio mugiezinen artean bat etortzeko gune bat sortzen saiatu ziren. Bestalde, sobietarrek Genevan zuten ordezkariak, Litvinov-ek, erabateko eta berehalako desarmearen tesia defendatu zuen. Artean, potentzia ertain eta txikiak nazioko interesek

eta nazioarteko kidetasunek agintzen zietenaren arabera jokatzeko zuten; batzuk frantsesen tesietara hurbiltzen ziren, esate baterako, *Entente txikia*; beste batzuk Alemania eta konferentziaren arteko zubi-lana egiten saiatu ziren, *Neutralen taldea* esaterako, horien artean Eskandinaviako estatuak, Suitza, Holanda eta Espainia (1933tik aurrera) zeuden.

Konferentziako lanen antzutasunaren adibide garbia izan zen Alemaniak aldi baterako konferentzia utzi izana (1932ko irailaren 14an), bai eta haren itzulera laburra ere, azkenik, 1933ko urrian Alemania nazionalsozialistak konferentzia eta Nazioen Elkartearen behin betiko utzi zituen arte.

Desarme Konferentziak bi urte iraun zuen, eta, hasieran, desarmearen itxaropena nagusi bazen ere, 1934tik aurrera, berrarmatzearen psikosia eta segurtasun-falta orokorra zabaldu ziren Europan. Eta interregno horretan zenbait formula diplomatiko bideratu zen, besteak beste, Italiak egindako proposamena *Lau herrialdeen ituna* delakoa osatzeko. Italiak Frantzia, Britainia Handia eta Alemaniarekin sinatu zuen itun hori 1933an Erroman, baina ez zen berretsia izan. Hala ere, Europako Direktorioa berrezartzeko saiakera horrek diplomazia-era tradizionalak zuten indarra utzi zuen agerian, Genevako printzipioen kalterako. Era berean, eta Itunak legeztatzen zuenarekin bat etorritik, eskualdeko ekimenak sortu ziren, segurtasuna hobetzeko helburua zuten horiek, batez ere, gai gatazkatsuenetan; hori ondorioztatze bidea uzten dute Entente Baltikoak eta Entente Balkanikoak.

Testuinguru hartan, Alemaniak Versaillesko Itunak ezartzen zituen klausula militarrek alde batera uzteko aukera ikusi zuen, eta, 1935eko martxoaren 16an, nahitaezko soldadutza berrezarri zuen. Europako potentzia handien erantzuna alemaniar errebisionismoaren aurkako adostasun epela baino ez zen izan. Frantsesen, britainiarren eta italiarren hurbilketa hori Stresako Frontea delakoan gauzatu zen apirilaren 11n. Berrero ere, potentzia handien borondate eta interesen menpe eta Nazioen Elkartearen bazterretan zeuden bideak Kontseiluaren jardura baldintzatu zuten, eta Alemaniaren urraketa zigortzeko ebazpena Stresako helburuen ildotik bideratu zen. Hala ere, Stresak emandako emaitzak epaitzea zaila da; izan ere, alde batek Genevako erakundearen sinesgarritasuna ahuldu zuen eta potentzia txiki eta ertainen mesfidantza areagotu, baina, bestetik, ez zuen kohesio sendorik sortu potentzia handien artean. Kohesio sendo horren falta agerian utzi zuen Alemaniak eta Britainia Handiak ekainaren 18an lortu zuten itsasoko auziei buruzko hitzarmenak, edota Italiak Afrikan gauzatu zuen politika errebisionista haren artean Frantziak izan zuen eskuzabaltasunak.

Alemaniak gero eta sendoago ekin zion politika errebisionistari Versaillesko ordenatik eratorri ziren segurtasun-bermeei zegokienez, eta Locarno desegitearekin batera heldu zen joera hura gorenera, Abisiniako krisiaren azken fasearen une berean. Locarnoko akordioak urratzeak Stresako potentzia handien adostasunari behin betiko amaiera eman zion. Locarnoko konpromisoak alde batera uzteko Hitlerrek baliatu zuen aitzakia frantsesen eta sobietarren arteko ituna (1935eko maiatzaren 2an sinatua) Frantziako Diputatuen

Ganberak (1936ko otsailean) berretsi izana izan zen. Itun horretan, jadanik hasita zegoen Paris eta Moskuren arteko hurbilketa-prozesua gorpuztu zen, izan ere, Louis Barthou-ren zuzendaritzapean, Locarnokoaren pareko akordio bat lortzeko lanak egin ziren 1934an ekialderako, eta, haien ondorioz, Sobietar Batasuna Nazioen Elkartearen sartu zen. Alemaniako gobernuak egoera hura erabili zuen Belgikako, Britainia Handiko eta Frantziako gobernuak jakinarazteko (1936ko martxoaren 7an) ez zela bateragarria Locarnoko Ituna Frantzia eta Sobietar Batasunaren arteko itun harekin. Egun horretan bertan, Alemaniak Renania berrero militartzeari ekin zion. Lau egun geroago, Frantziak Nazioen Elkarteak eskaintzen zituen ildoetatik jardungo zuela iragarri zuen; martxoaren 19an Kontseiluak irmoki adierazi zuen Alemaniak nazioarteko legedia urratu zuela; baina Locarnoko Ituna sinatu zuten gainerakoek ez zuten ezer ere egin.

Alemaniaren politika errebisionistak ez zituen bazterretan utzi urte horietan izugarriko garrantzia izan zuten beste zenbait auzi, hots, gutxiengo alemaniarrena edota lurralde-osotasuna berrezarri beharrena. Ildo horretatik bideratu zen Alemaniako gobernuaren jardura: 1935eko urtarrileko plebizituaren ostean, Sarre land-a Alemaniako estatuan berrero sartzea, Dantzige talde nazionalsozialista babestea edota 1934ko urtarrilaren 26an Poloniarekin akordio bat sinatzea. Azken horrekin, Frantziak atzealdean zituen aliantzak ahultzeaz gain, gutxiengo alemaniarren egoera hobetzea lortu zuen, izan ere, 1919an sinatu ziren gutxiengoaren itunetatik deslotu baitzen Varsovia.

Genevako eraikinaren zimenduak behin betiko ahulduko zituen astinduak eman zituen bigarren epizentroa Erroma izan zen. Aurreko hamarkadatik, Italiako diplomazia faxista sarritan aritu zen Genevako bideetatik kanpo, eta kritika ugari egin zizkion Itunaren printzipio eta mekanismoei. Italiar diplomazia formula tradizionaletatik eta premisa errealistetatik hurbilago zegoen Genevako estilo eta ideietatik baino, eta hala utzi zuten agerian *Lau herrialdeen itunaren* pareko ekimenek edota *Stresako fronteari* emandako laguntzak.

Erromak ez zuen ondo ikusten Alemaniak Europa erdialdean zera-bilen politika, bereziki Austriarekiko politika; bestalde, Balkanetan eta Afrikan hedatu nahi zuen. Horrek, Erroma eta Parisen arteko hurbilketari oinarria eman zion 1934tik aurrera, eta, 1935eko urtarrilean, Erromako Akordioak sinatu ziren. Italiak Afrikarekiko gauzatu zuen politikak Frantzia eta Britainia Handiaren arteko adostasun ahula probatu zuen, bai eta segurtasun kolektiborako sistemaren sinesgarritasuna ere. Abisiniako krisia, zeinaren hasiera *Negusaren* tropen eta Italiako kolonia-gudarosteen arteko istilua (Ual-Ual-en, 1934ko abenduaren 5ean) izan baitzen, Nazioen Elkartearen ospeak eta benetako eraginkortasunak jasan zuten proba erabakigarria (*test case*) izan zen; hala dio behintzat aho-batez Elkarteari buruzko historiografiak.

Urtarrilean Etiopiako gobernuak Kontseilura jo zuen arbitraje bidez konponbidea topatzeko, eta diplomazia italiarrak 1928an Etiopiarekin sina-

tutako itunak eskaintzen zituen elkarrizketa-mekanismoak erabiltzea erabaki zuen. Baina ekintza horren helburua prestaketa militarrek egiteko denbora irabaztea eta Elkartearen ekimenetatik babesa hartzea baino ez zen. Kontseiluak krisiaren kudeaketan protagonismo handiagoa hartu ahala, italiar diplomaziak taktika aldatu zuen, eta, Aloisik Kontseiluan aurkeztutako memorandumak zioenaren arabera, auzia eztabaidatzeko prest agertu zen, betiere, bere indar-ekintza zurutuz eta Addis Abebako gobernuari gainerako herrialde zibilizatuen parean jarduteko gaitasuna ukatuz.

Kontseilua bitartekotza- eta baketze-bidea agortzen saiatu zen, izan ere, Elkartearen zigor-neurriak aplikatzeak mesfidantza eragiten zuen kideengan. Asmo horrekin, batzorde berezi bat sortu zen (Espainiak, Frantziak, Britainia Handiak, Portugalek eta Turkiak osatua), eta haren zeregina negoziaketarako oinarri berriak ezartzea izan zen. Etiopiarren eskubideek atzera egin zuten nabarmen batzordeak liskarrari eman zion konponbidean, eta horrek agerian utzi zuen, berriro ere, Elkartea potentzia handien borondatearen menpe zegoela. Hala zen, batzordeak frantsesek, britainiarrek eta italiarrek udan zehar izan zituzten elkarrizketen berri eman zuen, horietan Elkartearen babespean egongo zen protektoratu bereizi bat sortzeko aukera aipatu omen zen, eta, horretan, abantaila argiak emango zitzaizkion Italiari.

Gertakari horiek potentzia handiek Kontseiluan izan zuten jokabide anbigua frogatu zuten. Britainia Handiak eta Frantziak (nahiz eta kasu jakin horretan Frantzia gogo txikiagoz aritu) Itunaren defendatzaile amorratu gisa jokatu zuten, baina herrialdeon diplomazia-praktikak (Londresen bul-tzatutako politika *bakegilearen* seinale argiak bazituen ere) errealismoa zuen nagusi. Eta, beraz, Genevari bizkarra emanda, diplomazia tradizionalaren bideak erabili zituzten Erromako tesiari Addis Abebakoari baino gehiago hurbilduko zitzaion irtenbidea bilatzeko.

Operazio militarrek 1935eko urriaren 3an hasi ziren. Kontseiluak, erakundearen historian lehenengoz, Itunaren 16. artikuluko zigor-sistema aplikatu zuen jardura horiei erantzuteko. Urriaren 5ean, krisiari aurre egiteko aparteko deialdira agertu ziren berrogeita hamalau estatuetatik berrogeita hamar zigorrak ezartzearen alde agertu ziren. Italiari ezarri zitzaizkion zigor ekonomikoen eraginkortasuna zalantzarria da; alde batetik, ez zegoen potentzia ekonomiko handirik (AEBak kasu), eta bestetik, zigorrak ezarri zituzten estatuek ere ez zituzten zigorrak gogortu nahi izan (petrolioaren zigorren barnean sartzea, esate baterako) Italiaren kontrako parte-hartze militarra ez eragiteko. Jarrera anbiguoen adierazgarri izan zen Frantziak eta Britainia Handiak Hoare-Laval akordioa sinatu izana, akordio horrek Mussoliniren eskariak asetzeko helburua zuen. Akordio horren berri jakin zenean, Nazioen Elkartean iskanbila sortu zen berriro ere, zigor-kanpaina bete-betean baitzegoen.

Zigor-politikaren antzutasunak, maiatzaren 9an Italiak garaipen militarra lortzeak eta Renaniako krisiak Nazioen Elkartearen sinesgarritasuna xahutu zuten behin betiko, bai eta segurtasun kolektiboarekiko konfiantza ere.

2.4. Segurtasun kolektiboaren porrota (1936-1939)

1936ko erdialdetik aurrera, Nazioen Elkartea Versaillesko ordenaren suntsiketaren ezohiko lekukoa baino ez zen izan. Segurtasun kolektiboaren porrota jakin eta onartu egin zuten haren aldekoen gogoek eta haren kontra zeudenen gogoek ere. Genevan nagusitu zen ezkortasunaren sintoma adierazgarria izan zen 1936ko uztaileko Asanbladan Ituna berrizatzeko debate ofizialari ekin ziotela, bai eta segurtasun kolektiboaren krisia gai nagusitzat izan zuen autokritika ere. Erakunde politikoen fosilizatzea eta gerraren aurreko krisien garapenaren aurrean Genevak agertu zuen ezintasuna aldi berean gertatu ziren.

Itunaren printzipio eta prozeduren ukapena ekarri zuten praktikan elkar-teko potentzia handien politika bakezaleak (Britainia Handiarena eta haren lerratzean Frantziarena) eta errebisionismoa bakea gordetzeko formula gisa erabiltzeak. Aldiz, Elkartek eta bere oinarrian zeuden printzipio demokratiko eta liberalek ospea galtzeak, bai eta Alemaniak eta Italiak *statu quoari* egindako erronken amaierak ere, potentzia faxisten hurbilketa ekarriko zuen haztegia sortu zuten. Hurbilketa hori 1936ko azaroan Berlin-Erroma Ardatza sinatu zenean instituzionalizatu zen, bai eta hilabete hartan bertan Alemaniak eta Japoniak Anti-Komintern Ituna sinatu zutenean ere. Gerora, 1937. eta 1939. urteen artean, Italia, Hungaria, Mantxukuo eta Francoren Espainia gehituko ziren azken akordio horretara.

Nazioen Elkartearen paralisiaren lehen seinale nabariak agertu ziren Europan eta Ekialde Urrunean Genevako erakundea eraginkorra ez zela agerian geratu zenean: Europan, 1936ko uztailearen 18an Espainiako gerra zibila hasi eta bertako gobernu errepublikanoak hainbat eskari egin zuenean gerra zibila nazioarteko bihur ez zedin; Ekialde Urrunean, 1937an Txina eta Japoniaren arteko gerra hastean, Elkartek bere erantzukizuna hartzea saihestu zuenean, Bederatzi Potentzien Ituna sinatu zutenen mesederako.

1938tik aurrera, II. Mundu Gerraren aurreko krisiek bata besteari jarraitu zioten, eta, Europan, Alemania nazionalsozialista izan zuten protagonista nagusi, haren politika errebisionista oldarkorra gero eta sakonagoa zen irakinaldi-egoeran murgildu baitzen. Nazioen Elkartearen eraikin berriko korridoreek arestiko protagonismoa galtuta, potentzia handietako kantzelaritzek hartu zuten behin betiko nazioarteko auzi handi eta larriak eztabaidatu eta erabakitzeko aktore pribilegiatuen papera.

Hilabete horietan, Hitlerrek 1937ko azaroaren 5ean egindako isilpeko batzar batean jakinarazi zituen helburuak burutu zituen, Austrian eta Txekoslovakian zeuden alemaniarren etorkizunari buruzko helburuak alegia. Lehenari dagokionez, Alemaniak Austriarekin 1936ko uztailearen 11n sinatu zuen hitzarmenaren bidez, bien arteko harremanak normaltzeari ekin zitzaion. Alemaniak Austriaren subiranotasun osoa onartzen zuen, eta Austriak Estatu alemaniarra zela onartu zuen. Halaber, Berlin eta Erromaren arteko loturak finkatuta egonik, Alemaniako diplomaziak bere asmo unionistak bete-

tzeko oztopo handienetakoa gainditzea lortu zuen, Austriaren independen-tziarekiko Mussolinik hartu zuen berme-emailearen rola, alegia. 1938ko otsailean, Berlinek Schuschnigg (austriar kantzilerra) bultzatu zuen Seyss Inquart (Austriako alderdi nazionalsozialistako burua) Barne Ministerioan jartzera; horren ostean, martxoaren 9an, Austriako kantzilerrak iragarri zuen hilabete horretan bertan Alemaniarekiko batasunari buruzko plebiszitu bat egiteko asmoa zuela. Orduan, armazko interbentzioaz baliatzea erabaki zuen Hitlerrek. Martxoaren 13an, Alemaniarekiko batasuna, *Anschluss*, erreali-tate bihurtu zen tropa alemaniarrek Vienan sartu zirenean.

Alemaniatik kanpo zeuden gutxiengo alemaniarren inguruan konpondu gabe zegoen azken kapituluak 1938ko irailaren eta 1939ko martxoaren ar-tean aurkitu zuen irtenbidea, Txekoslovakia zatikatzean. 1938ko apirilaren 24an, Hitlerrek Henlein (Sudeteetako gutxiengo alemaniarren burua) ale-maniar hiritarren autonomiaren aldeko programa oldarkorra prestatzera bultzatu zuen; garai hartan, 3 milioi ziren Sudeteetako alemaniarrek. Ildo haiek Darlsbad-eko Programan islatu ziren. Era berean, Nuremberg-en egin-dako diskurtso batean Hitlerrek eskakizunak handitu zituen eta Sudeteen au-tonomia eskatu beharrean lurralde haren anexioa eskatu zuen, alde zuzenetik gutxiengoaren eskubideak aipatuz.

Europa mendebaldeko potentzia handien erantzunak politika bakezaleari eutsi zion. Frantziak, 1925eko Itunari jarraiki, Txekosloveniaren lurralde-osotasuna bermatu behar zuen, eta, beraz, Sobietar Batasunarekin zituen harremanak sendotzeari ekin zion, nahiz eta Moskuren laguntza eraginko-rra izan zedin errumaniarrek eta poloniarrek haien lurraldeak zeharkatzeko baimena eman behar zieten. Tentsio handiko egoera horretan, azken buruan, Paris eta Londres bat etorri ziren eta Mussolinik proposatutako lau poten-tzia handien arteko konferentzia egitea onartu zuten. München, irailaren 29an egin zen batzar hark gatazka saihestu zuen, baina alemaniarren eska-riei men egin zieten txekosloveniaren Estatuaren eskubideen kaltetan. Neville Chamberlainek Reich-aren indarrezko kolpe igargarri hura fikzio juridiko bilakatzea lortu zuen; horrela, bada, Sudeteak Alemaniaren subiranotasuna-ren menpe geratu ziren, eta, haren guztiaren oinarrian, Hitlerrek sinatutako itunak errespetatuko zirelako ilusioa zegoen.

Txekosloveniako krisiaren azken hitza 1939ko martxoan heldu zen, Hitlerrek Txekosloveniako politikoki eta militarri esku hartzea erabaki zue-nean. Hacha txekosloveniako presidentea Berlinek zegoela, alemaniar tropak Pragan sartu ziren. Orduan, Eslovakia estatu independente bilakatu zen, eta Bohemiako protektoratua Alemaniaren eragin zuzenaren menpe ge-ratu. Aldi berean, Berlinek onospena zutela, Poloniak Teschen okupatu zuen, eta Errumania indarrez sartu zen Rutenian.

Versaillesko ordenaren desgitearen azken kapituluak Baltikoko itsas-bazterrean gauzatu zen, Italiak apirilean Albania inbaditu ostean. Txe-kosloveniaren subiranotasunaren kontrako eraso inflexio-puntu bat izan zen Alemaniaren politika errebisionista. Aurretik alemaniar herriaren ba-

tasuna bilatzen zuen politika egiten zuen, eta, haren ostean, bizi-espazioa (*Lebensraum*) bilatzen zuen politika gauzatuko zuen. Halaber, Dantzigeko auziak eta krisi poloniarrek (1939ko abuztuaren) politika bakezalearen amaiera ekarri zuten. Izan ere, Londresek eta Parisek berrindatu berriak zituzten ber-meak Poloniarekin (martxoaren 31n) eta Grezia eta Errumaniarekin (apirila-ren 13an). Aldi berean, Britainia Handiak Turkiarekin kooperatzeko eta elka-rri laguntzeko hitzarmen bat sinatu zuen, Mediterraneoan gerra sortuko balitz ere. Hitzarmen hori 1939ko urriaren 19an osatu zen, Frantziak, Britainia Handiak eta Turkiak aliantza sinatu zutenean.

Apirilaren 28an, Poloniarekin 1934an sinatutako adierazpena salatu zuen Hitlerrek Reichstag-ean. Eta memorandum bat bidali zion Poloniarri, Dan-tzigen anexioa eskatuz, bai eta Dantzig hiria Alemaniarekin lotuko zuen ko-rridore bat ezartzea ere, non estraterritorialitate-estatutua onartuko baitzen. Poloniar gobernuak Berlinek eskarrien kontra azaldu zen.

Bitartean, Alemaniako diplomaziak aliantza-sareari azken ukituak eman zizkion. 1939ko maiatzaren 22an, *Altzairuzko Itun* delakoa sinatu zuen Austriarekin; horren arabera, bi potentzia horietako bat gerra batean naha-siko balitz elkarri laguntzeko konpromisoa hartu zuten biek.

Bitartean, Sobietar Batasunarekin harreman politiko-diplomatikoak are-a-gotu zituzten bai alemanek eta bai frantses eta britainiarrek ere. Apirilaren er-dialdean eta gertatu berriak kontuan hartuz, Moskurekiko aliantza zehazteko prestago azaldu zen Paris. Hilak 18 zituenean, Sobietar Batasuna, Britainia Handia eta Frantzia batuko zituen itun bat proposatu zuen; haren edukiak elkarri laguntzeko hitzarmena, hitzarmen militarra eta Itsaso Baltikoko eta Itsaso Beltzeko estatuentzako bermea biltzen zituen. Hala ere, sobietar tes-tuinguru politiko eta diplomatikoa nabarmen eraldatzen ari zen, azkar eral-datu ere. Estrategia frontepopulista jasan zuen funtsezko eraldaketa age-rian geratu zen Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren XVIII. Batzarrean (1939ko martxoaren 10ean). Stalinek proposatu zuen kanpo-politikak age-rian utzi zuen aurreko batzarrean babestu zen segurtasun kolektiboaren kon-tzeptua guztiz baztertu zuela. Stalin sinetsita zegoen herrialde kapitalistak elkarren aurka jartzea komeni zitzaizela Sobietar Batasunari, bai eta edono-lako gerraren biktima ez bilakatzea ere; eta ideia horri jarraiki jokatu zuen. Sobietar kanpo-politikaren biraketa hura Kanpo Arazoetarako Ministerioaren burua aldatzean gauzatu zen (Litvinov-en ordez Molotov jarri zutenean) eta ondoren Alemaniak eskainitako ez erasotzeko ituna sinatu zuenean. 1939ko abuztuaren 23an sinatu zuten Molotovek eta Von Ribbentropen alemaniarren eta sobietarren arteko itun hura. Itun hark protokolo ezutu bat zuen, zei-netan Alemaniak eta Sobietar Batasunak Europako ekialdea zatikatzen bai-tzuten: Polonia banatzen zuten eta Lituaniaren iparraldeko muga banalerro gisa harturik bakoitzak bere interes-esparrua zedarritu zuen, modu horretan Finlandia, Estonia, Letonia eta Lituaniaren etorkizunak zehaztuz.

Irailaren leian, aurrez gerra deklaratu gabe, Wehrmacht-aren tropek Po-loniako muga zeharkatu zuten, eta Poloniaren zati bat okupatu, alde zuzenetik

Moskurekin negoziatua zutena. Indar-ekintza berri hark mundu-mailako gerra berri bat piztu zuen. Modu horretan, gaur egungo nazioarteko gizartearen eraiketan eragina izan duten mundu-gerren zikloan, fase latz berri bati eman zitzaion hasiera. Eric Hobsbawnek «katastrofe aldi» izena eman zion garai hari; izan ere, bi mundu-gerren arteko interregno hura tentsioz beteta egon zen, eta, 1918. eta 1941. urteen bitartean, hogeita hamar bat gerra eta gatazka armatu gertatu zen —Kalevi J. Holsti-ren datuen arabera—. Beraz, europarren ikuspegiaren eta oroimenean *hogeita hamar urteko gerra* berri bat izan zen hura.

Bibliografia

Bibliografia orokorra

- DUROSELLE, Jean-Baptiste, *Histoire diplomatique de 1919 à nos jours*, Paris, Dalloz, 1993. Historia diplomatikoaren alorrean historiografia frantseseko klasiko bat da lan hau. Nazioarteko harremanetan munduko gainerako eskualdeek jokatu duten paperari tratu orekatuagoa ematen die.
- HOBBSAWM, Eric, *Historia del siglo xx*, Bartzelona, Crítica, 1995. Autoreak «xx. mende labur» izendatu duen horretako prozesu eta gertakarien inguruko hausnarketa iradokitzailea da; horretan, autore britainiarrak bere oroimena baliatzen du bizitako historiaren ezagutza-iturri gisa.
- KISSINGER, Henry, *Diplomacia*, New York, 1996. Nazioarteko harremanen azterketa dokumentatua, errealismoaren ikuspegitik egina.
- MIRALLES, Ricardo, *Equilibrio, hegemonía y reparto. Las relaciones internacionales entre 1870 y 1945*, Madril, Síntesis, 1996. Aro garaikideko aldi zabal eta bizi hartako nazioarteko harremanei buruzko azterketa orokor zorrotza kaleratu duen lan gutxi eman du Espainiako historiografiak, eta horietako bat da hau.
- PAXTON, R. O., *Europe in the Twentieth Century*, New York, Harcourt, 1975. Ikuspuntu iradokitzaileek eta globaltasun-nahiak ezinbesteko kontsulta-liburu bilakatzeko dute Ipar Amerikako historialari honen lana.
- RENOUVIN, Pierre, *Historia de las relaciones internacionales. Siglos XIX y XX*, Madril, Akal, 1982. Frantziako historiografiaren sortzaileetako bat den honek nazioarteko harremanen azterketa egiten du sakoneko indarrei buruzko hausnarketatik abiatuta. Gai hauei buruzko edozein azterlanerako ezinbesteko erreferentzia-puntua da oraindik ere.

Nazioarteko ordena berriaren eraketa

- KEYNES, John M., *Las consecuencias económicas de la paz*, Bartzelona, Crítica, 1920. Ekonomista bikainak Alemaniari inposatu zitzaion bakearen eragin negatiboak eta mundu-ekonomiaren normalizazioan izandako ondorioak aztertzen ditu ikuspegi kritiko batetik.
- LLOYD GEORGE, David, *The Truth about the Peace Treaties*, 2 liburuki, Londres, 1938. Konferentzian britainiar ordezkarien buru izan zenaren oroitzapenak dira.

Bertan, azaldu egiten dira Alemaniarekiko jarreretan nagusitu zen malgutasuna eta gainerako potentzia handien estatu-politikariek izandako harremanen izaera.

- NICHOLSON, Harold, *Peacemaking*, Londres, Constable & Co., 1933. Britainiar ordezkarien aholkularietako baten lan bikain honetan, Bake Konferentziako prozesu eta emaitzari buruzko iritzi kritikoak plazaratzen dira.
- TARDIEU, André, *La paix*, Paris, Payot, 1921. Konferentziako protagonistei buruz George Clemenceauren aholkulari nagusietako batek egindako balioespena eta Frantziako ordezkariak defendatu zituzten tesiei buruzko hausnarketa.

Gerrarteko garaiko nazioarteko harremanak

- CARR, Edward H., *International relations between the two World Wars, 1919-1939*, Londres, Mac Millan, 1985. Garai hura ezin hobeki ezagutzen duen historialaria da; Foreign Office-n lanean ari zela aztertu zuen nazioarteko errealitatea.
- KITCHEN, Martin, *Europa en el período de entreguerras*, Madril, Alianza Universidad, 1992. Europako geografiako txoko guztietan gertatutakoak zabal aztertzen dituen eta nazioarteko arazoak zein nazioarteko harremanen bilakaera modu globalean aztertzen dituen lan orekatua.
- MILZA, Pierre, *De Versailles à Berlin, 1919-1945*, Paris, Masson, 1972. Garai hartako nazioarteko harremanen inguruko dibulgaziozko lan honek gaian adituak diren hainbaten ekarpenak batzen ditu. Ohiko eskuliburuetan ez bezala, faktore ekonomiko eta kulturek nazioarteko harremanen garapenean izan zuten eraginean sakontzen du autoreak.
- NEILA, José L., *La Sociedad de Naciones*, Madril, Arco/Libros, 1997. Nazioarteko erakunde historikoaren izaera, garapena eta esangura historikoari buruzko sintesi gaurkotua; Espainiaren parte-hartzea aztertzen duen hurbilketa laburra ere badauka.
- TAYLOR, A. J. P., *Los orígenes de la II Guerra Mundial*, Bartzelona, Imprenta Ideal, 1963. Bere garaian oso iradokitzailea izan zen interpretazioa aurkezten du lan honek. Hitlerren Alemaniaren kanpo-politikaren inguruko topiko historiografikoak berrikusten ditu, eta, horrela, gainerako potentzien jarduerarekiko ikuspegi zuzenagoa sorrarazten du.
- TORRE, Rosario de, *La Sociedad de Naciones*, Bartzelona, Planeta, 1977. Gai horren inguruan Espainiako historiografiak egin zuen lehen sintesietako bat da hau, ondoren egin diren dibulgaziozko lanen oinarria izan dena.
- WALTERS, Frank P., *Historia de la Sociedad de Naciones*, Madril, Tecnos, 1971. Erakundearen historiara hurbildu nahi izanez gero, nahitaezkoa da lan hau kontsultatzea.

Dokumentu-iturriak

- PEREIRA, Juan Carlos eta Martínez Lillo, Pedro A., *Documentos básicos sobre historia de las relaciones internacionales, 1815-1991*, Madril, Editorial Complutense, 1995. Dokumentuak biltzeko eta antolatzeke ahalegin bikaina; gainera, aurretik garai hakoitzari buruzko sarrera zehatz eta zorrotzak eskaintzen ditu.